

Euskararen marka

2020

EGILEAK:

Estitxu Garai Artetxe
Irene García Ureta
Irati Agirreazkuenaga
Sergio Monge
Angeriñe Elorriaga
Patxi Azpillaga
Naroa Jauregizuria
Ainara Miguel
Koldo Atxaga



Euskararen marka

2020



		2		4
		Asoziazioak		Atxikimendua
		2.1. Asoziazio funtzionalak	29	4.1. Euskarekiko atxikimendua eta identitatearekiko lotura
		2.1.1. Atributu funtzionalak	29	
		2.1.2. Euskararen balio praktikoak	34	4.2. Atxikimenduaren indargune eta ahuleziak
		2.1.3. Atributu funtzionalen indargune eta ahuleziak	39	
		2.2. Asoziazio sinbolikoak	40	
		2.2.1. Euskararen atributu sinbolikoak	40	
		2.2.2. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, hizkuntza gaitasunaren arabera	42	
		2.2.3. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, ideologiaren arabera	44	
		2.2.4. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, adinaren arabera	45	
		2.2.5. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, herrialdearen arabera	46	
		2.2.6. Euskal hiztunei dagozkien atributu sinbolikoak	47	
				5
				Aktibitatea
				5.1. Aktibitatea profil ezberdinen arabera
				5.2. Aktibitatearen indargune eta ahuleziak
				6
				Ondorioak
				74
				7
				Taulen aurkibidea
				78
				8
				Grafikoen aurkibidea
				79
				9
				Irudien aurkibidea
				80

Hitzaurrea	5
Metodologia	6
Antzematea	
1.1. Euskararekin lotzen diren egoerak	9
1.1.1. Euskara hutsarekin lotzen direnak	9
1.1.2. Egoerak: euskara beste hizkuntzekin batera	10
1.1.3. Egoera sozialak hizkuntza gaitasunaren arabera	14
1.2. Euskara nolako gaiekin lotzen den	17
1.3. Euskararekin lotzen diren mintzakideak	22
1.4. Euskararen bilakaera	26
1.5. Antzematearen indargune eta ahuleziak	27

3		3
Aktitudeak		Aktitudeak
3.1. Sentimenduak euskaraz egitean (edo besteek euskaraz egitean)	51	
3.1.1. Sentimentuak hizkuntza gaitasunaren arabera	52	
3.1.2. Sentimentuak ideologia politikoaren arabera	53	
3.1.3. Sentimentuak herrialdearen arabera	54	
3.1.4. Sentimentuak adinaren arabera	55	
3.2. Euskara ezagutzearen desiragarritasuna	57	
3.2.1. Euskara ezagutzearen desiragarritasuna hizkuntza gaitasunaren arabera	58	
3.3. Euskarari lotutako jarduera instituzionalaren balorazioa	59	
3.3.1. Euskararen inguruko jarduera instituzionalaren balorazioa, profilen arabera	60	
3.4. Jarreraren indargune eta ahuleziak	61	

HITZAURREA

Lan honek euskararen markari buruzko ikerketa jasotzen du. Euskararen marka, euskararekin lotutako asoziazio eta konexio mentalen bilduma da, euskara aipatzen denean, jendearen buruetan sortzen diren iruditeriak alegia. Euskaingintza eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) elkarlanean aritu dira proiektu honetan. Euskaingintzaren jardunaren inguruko diskurtso, egiteko eta estrategiari buruzko hausnarketa oinarri izanda, euskararen markaren egungo egoera aztertu da.

Markak hornitzaile desberdinen eskaintzak bereizteko erabiltzen dira eremu komertzialean. Markagintzan egindako ahaleginak bezero potentzialen buruan markari buruzko irudi partekatuak sortzera bideratzen dira. Marka bat eraiki eta elikatzeko prozesua, alabaina, gizarteko alor guztietara zabaltzen ari da. Marketinetik datozen teknikak jada ez dira enpresa pribatu eta produktu komertzialetara mugatzen; aitzitik, pertsonak, lurraldeak eta baita kultura jakinak ere marka gisa jorrazteko joera gero eta hedatua dago.

Hizkuntzek ere irudi partekatuak dituzte, desberdin egiten dituzten asoziazio eta konexio multzoak. Jendarte gero eta eleaniztunagoetan bizi gara; eta eleaniztasun horretan, hizkuntza bakoitza inguratzen duen narratibak eta hizkuntza horri lotutako asoziazio positiboek eta negatiboek eragin zuzena izan dezakete hizkuntza hori ikasteko motibazioan, bai eta gerora hizkuntza hori erabiltzeko joeran. Beraz, hizkuntzen markagintzari buruz ere hitz egin genezake, hizkuntza zehatz batekin lotutako asoziazio jakinak sortzeko, mantentzeko eta baliatzeko ahalegin kontziente gisa. Kontzeptuaren hedapen naturala da, eta zentzua du hizkuntza-politiken formulatzaileentzat eta hizkuntza jakin bat sustatzeko interesa duten beste erakunde batzuentzat.

Euskal Herrian, euskara normalizatzeko ahaleginak ibilbide luzea egin du eta ikerketa honen bidez ikuskera berria eskaini nahi

diogu lan horri. Politika linguistikoek diziplina artekotasuna eskatzen dute eta marketinetik datozen jakintza eta teknikak ere ekarpen baliotsua egin dezakete. Are gehiago, euskararen ezagutza gero eta zabalagoa den une honetan, non begirada eta ahaleginak erabilera sustatzera bideratzen ari diren.

Euskararen erabilerari eragiten dioten faktoreak askotarikoak izan daitezke, batzuk norbere ezaugarri pertsonalei lotutakoak (hizkuntza gaitasuna eta motibazioak), beste batzuk testuinguruari lotutakoak (ohitura, lurraldeko hizkuntza nagusia zein den...), baina badira baita ere hizkuntza bakoitzaren ospe eta erakargarritasunari lotutako arrazoiak: hizkuntzek balio sinbolikoa hartzen dute, metaforikoki azalduta, hizkuntza bakoitza soineko jakin bat bihurtzen da, ezaugarri sinbolikoz jositako soineko. Soineko bakoitza jantzita gure burua nola ikusten dugun eta nola sentiarazten gaituen, nola baldintzatzen duen soineko horrek besteek nola ikusiko gaituzten, horra hor hautu horretan zirt edo zart egiteko pisu handia izango duen zerbait. Horra hor hizkuntzaren marka.

Hortaz, estreinakoz, marketin eta branding ezagutza eta sistematika hizkuntzaren alorrekin uztartu dira. Proiektu honek, hala ikuspegi praktikoa nola teorikoa elkartu ditu, eta hau aintzat hartuta, azterketa hainbat fasetan antolatu da: lehen fasea kualitatiboa izan da, eta zortzi eztabaida talde antolatu dira; adin tarte eta eremu soziolinguistiko ezberdinetako herritarrak elkartuz. Ondoren, hizkuntza markagintzaren teorizazio eta kontzeptualizazioa garatu da eta hurrengo urratsa inkesta diseinatzea izan da. 1.200 inkesta egin dira, eta hortik sortu da "marka txosten" hau.

Etorkizunean, behin txosten honen ondorioak aztertuta, aplikazio praktikorako marka estrategiaren proposamena garatuko da.

0. METODOLOGIA


1. antzematea
2. asoziazioak
3. aktitudeak
4. atxikimendua
5. aktibitatea
6. ondorioak
7. taulen aurkibidea
8. grafikoen aurkibidea
9. irudien aurkibidea

Markagintzatik datorren jakintza hizkuntzaren alorrera ekartzeko Keller eta Lehmann-ek (2006) proposatutako eredua hartu da oinarri moduan. Eredua hori kontsumitzaileengan oinarritutako eredua da, gure kasuan, hiztunengan oinarritutakoa.

Marka sorkuntzan eragiten duten elementuak eredu hierarkiko baten bidez multzokatzen dituzte, honako 5 A hauen bidez laburbildutakoa: antzematea, asoziazioak, aktitudeak, atxikimendua eta aktibitatea.

Atxikimendua: Hiztunak hizkuntzarekin duen harreman afektiboa. Atxikimenduaren bi muturretan maitaleak eta *hater*-ak daude.

Asoziazioak: hizkuntzari atxikitako ezaugarriak eta irudiak dira. Bi motatakoak dira: funtzionalak (hizkuntzaren erabilerari lotutako ondorio praktikoak) edo sinbolikoak (hizkuntzari lotutako imaginarioa).



Aktibitatea: Hizkuntzari lotutako ekintzak, erabilera eta azken muturrean hizkuntzaren defendatzaile edo deitoratzaile aktibo izatea.

Aktitudeak: Asoziazioen ondorioz sortutako hizkuntzarekiko juzku eta sentimendu ebaluatibo/afektiboak dira.

Antzematea: Markaren (hizkuntzaren) ezagutza eta oroipena da. Hizkuntza zein neurritan datorren gogora erabiler-egoera jakinetan.

1. irudia. Markagintzaren tresnak eta faseak. Iturria: Keller eta Lehmann (2006)etik moldatua

Eredua hori oinarri hartuta euskararen marka aztertzeke metodologia garatu da. Metodo kualitatibo eta kuantitatiboak baliatu dira, alegia, *focus* taldeak eta makroinkestak.

Lehenengo urratsa *focus* taldeen bidez azterketa esploratorioa egitea izan da. Oinarri teorikoan zehaztutako ataletan sakontzeko (antzematea, asoziazioak, aktitudeak, atxikimendua, aktibitatea) zortzi *focus* talde gidatu dira. Taldeak osatzeko aintzat hartu dira testuinguru soziolinguistikoa, hizkuntza gaitasuna eta adina. Talde barneko partaideei erreparatuta, berriz, taldeak homogeneoak izan dira, bizitoki, hizkuntza gaitasuna eta adin-tarte berekoak.

Focus taldeen emaitzak izan dira makroinkestak diseinatzeko abiapuntua. Hau horrela izanik eta aurrerago xehetasun handiagoz azaltzen dugun moduan, erabilitako tresna nagusia inkesta izan da, telefonikoa eta online. Euskal Herriko 18 urtetik gorako biztanleria inkestatu dugu, haien esanak eta iritziak jasotzeko.

Inkestan teknika mistoa baliatu da. Batetik inkestatzaile batek ordenagailuz lagunduta egindako inkesta telefonikoa (CATI) eta bestetik online betebeharreko inkesta autoaplikatua (CAWI). CATI edo sistema telefonikoa erabili dugu telefono finkoen zerrenda batetik abiatuta. Online sistema 18 eta 55 urte arteko internauten panel bat erabilita, modu horretan telefono finkorik ez duen biztanleriara iritsi gara. Lagina, guztira, 1.188 herritarrek osatu dute.

0. metodologia

1. ANTZE-MATEA

2. asoziazioak
3. aktitudeak
4. atxikimendua
5. aktibitatea
6. ondorioak
7. taulen aurkibidea
8. grafikoen aurkibidea
9. irudien aurkibidea

Hizkuntzarekin lotzen diren egoerek, gaiek eta mintzakideek osatzen dute antzematearen atala. Markagintzaren alorrean, antzematea marka-osaketaren lehen urratsa da. Marka hori ezagutzea eta egoera ezberdinetan gogora etortzea oinarritzko urratsa baita markaren nabaritasuna aztertzeke garaian. Hizkuntzara ekarrita, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko, beste faktore batzuekin batera, egoera, mintzakide eta gai ezberdinek sortzen dizkiguten asoziazioen mapek bultzatuko gaituzte. Beste modu batera esanda, egoera, mintzakide eta gai ezberdinei lotuta euskara ez badago presente edo ez bazaigu gogora etortzen, zaila izango da erabiltzea.

Hurrengo ataletan, galdera honi emandako erantzunak aztertuko ditugu: Zure bizipen pertsonalei begira, zein da (egoera / gai / mintzakide) hauekin lotzen duzun hizkuntza edo hizkuntzak?


1.1. EUSKARAREKIN LOTZEN DIREN EGOERAK

1.1.1. Euskara hutsarekin lotzen direnak

Euskararekin lotzen diren egoerei dagokienez, azterketan hainbat egoera euskara hutsarekin lotu dituztenen kopuruak aztertuko ditugu lehenengo; gero asoziazioetan euskara beste hizkuntza batzuekin batera agertzen den eremuak marraztuko ditugu; eta, azkenik, hizkuntza profilen arabera datuak xehetuko ditugu.


Euskarak bere kasa dituen asoziazioetan, gehien nabarmendu den esparrua eskola da (%13,1); hurrengo lotura etxea da, eskolatik gertu (%12,4).

Bigarren maila batean aurkitzen ditugu, %6-8 arteko aipamenekin, hurrengo sei eremuak: unibertsitatea, lagunak, aisia, lana, administrazioa eta erosketak. Aipagarria da, hirugarren multzo batean eta oso kopuru urriarekin (%2tik behera) topatzen ditugula hedabideak, sare digitalak eta kulturari lotutako esparruak.



2. irudia: Eremuak euskara hutsarekin lotzen dituztenen ehunekoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Ondorengo grafikoan ikus daitezke kopuru zehatzak:




1. grafikoa: Eremuak euskara hutsarekin lotzen dituztenen ehunekoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

1.1.2. Egoerak: euskara beste hizkuntzekin batera

Euskara hutsa aipatu dutenei gaztelania edo frantsesarekin batera aipatu dutenen ehunekoa gehitzen badiegu, argazkia zertxobait aldatzen da. Hona hurrenkera: etxea (%24,1), hedabideak (%23,7), lana (%23,2), lagunak (%23,1) eta eskola (22,3%) dira euskara lotu zaien eremuak, nahiz eta beste hizkuntzarekin protagonismoa partekatu. Zinema/literaturak (12,9%) eta sareek (11%) aipamen gutxiago duten beste talde bat osatzen dute. Hona egoerak eta lotutako hizkuntzak erakusten dituen grafikoa:

ANTZEMATEA: EGOERAK



2. grafikoa: Egoera sozialekin lotutako hizkuntzak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"


Egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta (hizkuntza hegemonikoekin bizi den hizkuntza gutxitua izanik) ez da harriztekoa eremu gehienetan euskara beste hizkuntzekin nahastuta gogoratzea. Ezin da begi bistatik galdu euskaldun gehienak (%98,6) gutxienez elebidunak direla (%34,3) eta gehienek hiru hizkuntza (%43,7) edo gehiago (%20,6) hitz egiten dituztela.

Edonola ere, orokorrean azpimarratzekoa da euskarak ez duela hiztun kopuruaren arabera dagokion antzematea eta bereziki baxua dela eremu kulturean.

Ikerketaren laginean (baita jendartean ere, ikusi VI. Inkesta Soziolinguistikoa), euskaldunak %28 inguru dira, eta ia-euskaldunak batuta, %45. Eremu ezberdinetan aipatutako lotura guztiak, ordea, %25etik oso behera daude eta beste hizkuntzekin nahastuta ere euskarak zinema/literatura eta sareetan oso asoziazio urriak ditu (%13tik behera). Gaztelania eta frantsesarekin, ordea, guztiz kontrakoa gertatzen da: modu elebarkarrean eremuek hizkuntza hauekin duten asoziazioa askoz handiagoa da euskal jendartean dauden pertsona elebarrak baino: %55 inguru dira laginean gaztelaniaz edo frantsesez soilik dakitenak, eta eremu guztietako asoziazioak %70tik gora daude modu elebarkarrean. Eta, euskarekin gertatzen denaren kontrara, eremu kulturala (zinema/literatura) eta sareak dira hizkuntza hegemoniko hauekin modu elebarkarrean gehien lotzen direnak (%80tik gora bi kasuetan).


Hona hizkuntza gaitasunaren banaketa laginean, VI. Inkesta soziolinguistikoa datuekin erkatuta:

HIZKUNTZA GAITASUNA EUSKAL HERRI OSOAN



Iturria: IV. Inkesta soziolinguistika, 2016

HIZKUNTZA PROFILAK EUSKAL HERRI OSOAN




Iturria: Euskararen Marka, 2019

3. grafikoa: Hizkuntza gaitasuna Euskal Herrian. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Bestalde, eskolari dagozkion datuak harrigarriak dira eta aparteko analisi sakonagoa merezi dute. Esan bezala, euskararekin modu elebakarrean lotzen den egoera nagusia eskola izan arren (%13), eskolarekin lotutako hizkuntzak gaztelania edo frantsesa modu elebakarrean dira batik bat (%74,5). Ehuneko horiek, dena den, aldatzen dira herrialdeen arabera: Gipuzkoan (%60,8) eta Bizkaian (%72,7) erdararen zenbakiak batez besteko orokorrera iristen ez diren bitartean, Araban (%78,7), Iparraldean (%84,6) eta Nafarroan (%85,6) batez bestekotik gora daude.

ESKOLAREKIN LOTUTAKO HIZKUNTZA HERRIALDEKA




4. grafikoa: Eskolarekin lotutako hizkuntzak herrialdearen arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Deigarria da, hala ere, kasurik onenean (Gipuzkoaren kasuan) inkestatuak %36,4k soilik lotzea euskara eskolarekin, bakarrik (%24,3) edo gaztelaniarekin batera (%12,1). Bizkaian eta Araban ere, non, Gipuzkoan bezala, aspaldi txertatu zen euskara hezkuntza-sisteman eta D eta B hezkuntza-ereduak nagusi diren, %25,2k eta %18,9k bakarrik egiten dute lotura hori. Nafarroako eta Iparraldeko egoera, are kezkarriagoa izanik, ulergarriagoa

da, ezin baita esan nafar edo ipar euskal herritar gehienek euskaraz ikasi dutenik edo ikasten dutenik gaur egun. Horrela, nafarren %10,2k eta iparraldeko %8,6k bakarrik lotzen dute euskara (bakarrik edo hizkuntza hegemonikoarekin batera) eskolarekin. Aurretik agertutako argazkia asko aldatzen da, alabaina, adinaren arabera ezberdintzen baditugu datuok.

ESKOLAREKIN LOTUTAKO HIZKUNTZA ADINAREN ARABERA



5. grafikoa: Eskolarekin lotutako hizkuntzak adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"


Gazteenak dira eskola euskararekin gehien lotzen dutenak (18-29 urte bitartekoak): %52,4ak lotzen du euskara eskolarekin (euskararekin soilik %28ak eta euskara gehi beste hizkuntzak %24,2ak). Hurrengo adin tarteei dagokienez, 30 eta 44 urte bitartean, %37,8 dira eskola euskararekin batuta aipatzen dutenak; 45 urtetik gorakoek, hau da, frankismoaren osteko lehen urteetan jaioetakoek, oso gutxi erlazionatzen dute eskola euskararekin; 65 urtetik

gorakoek, ia ezer ez. Datu hauen bilakaera aztertzea interesgarria izango da jakiteko ea eskolarekin euskararen lotura indartzen doan ala ez, izan ere, eskolari askotan egotzi zaio euskalduntze prozesuaren ardura neurri handi batean. Horrela izanik, eskola ez da euskararekin pentsa litekeen beste lotzen, asko baitira eskola gaztelania edo frantsesarekin soilik erlazionatzen dituzten gazteak (%45,6%).

1.1.3. Egoera sozialak hizkuntza gaitasunaren arabera


Txostenean zehar profil jakinei lotutako datuak ere aztertuko dira zenbaitetan, galdetegian aintzat hartu diren profil soziodemografiko ezberdinei dagozkien datu esanguratsuak egongo balira. Genero ikuspuntuari dagokionez, ez da ezberdintasun nabaririk agertu alor batetan ere ez. Beste zenbait aldagaik, ordea, eragina izan dute. Esaterako, egoera sozial ezberdinak hizkuntza gaitasunaren arabera gurutzatuz gero, ezberdintasun batzuk nabarmentzen dira. Espero zitekeen moduan, profilen arteko alderaketan euskaldunek euskara egoera gehiagorekin lotzen dute besteek baino. Eta ia euskaldunek erdaldunek baino gehiagorekin.

EUSKALDUNA




EUSKARA EUSKARA + GAZTELANIA/FRANTSESA GAZTELANIA/FRANTSESA BESTEAK

IA EUSKALDUNA



EUSKARA EUSKARA + GAZTELANIA/FRANTSESA GAZTELANIA/FRANTSESA BESTEAK

ERDALDUNA



1.2. EUSKARA NOLAKO GAIEKIN LOTZEN DEN

Euskara gehien lotzen zaien gaiak pertsonalak (%9,9), egunerokoak (%9,7) garrantzitsuak (%7,6) eta gizartekoak (%6,7) dira. Bigarren mailan daude zientzia (%4) eta ekonomia (%3,8).



6. grafikoa: Egoera sozialekin lotutako hizkuntzak hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3. irudia: Euskara nolako gaiekin lotzen den. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Profil bakoitzaren barruan azterketa eginez gero, **euskaldunen artean** orain arte zehaztutako egoeren eta euskararen arteko asoziazioen hurrenkera antzekoa da. Hala ere, bi gauza aipatu behar dira. Batetik, Unibertsitatea atzerago doa kasu honetan, eta administrazioaren atzean kokatzen da. Bestetik, alde nabarmena dago eskolarekin eta etxearekin egiten den asoziazioaren eta beste egoerekin egiten denaren artean. Euskara lehen bi egoera horiekin indar askoz gehiagorekin lotzen da (herenak pasa horrela egiten du) beste egoerekin baino. Hau da, euskaldunentzat eskola eta etxea dira gunere bereziki euskaldunak.

Ia euskaldunen kasuan, euskararekin asoziazio gutxiago egiteaz gain, hurrenkera ere ezberdina da. Eskolaren ondotik unibertsitatearekin egiten duten asoziazioa da bigarren indartsuena, hau da, euskararen esparru nagusiztat hezkuntza dute ia-euskaldunek.

Erdaldunek ia ez dute egoerarik asoziatzen euskarekin. Eta egiten dutenen artean etxea eta eskola dira indartsuenak. Hortaz, alde handia ikus dezakegu euskaldunen eta beste taldeen artean. Euskaldunen kasuan, bi hizkuntzaren arteko elkarbizitza dago ia arlo guztietan. Gorago esan bezala, ezin da begi bistatik galdu euskaldun gehienak (%98,6) gutxienez elebidunak direla (%34,3), eta gehienek hiru hizkuntza (%43,7) edo gehiago (%20,6) hitz egiten dituztela. Horregatik, euskara beste hizkuntzekin nahastuta agertzen da, baina bereziki hizkuntza hegemonikoarekin (gaztelania edo frantsesa). Ia euskaldun edo erdaldunen artean, ordea, euskara ia desagertzen da edo erabat desagertzen da asoziazioetatik.


Ikusten da nola oinarritzko gaiekin, egunerokoekin zein pertsonalekin, euskara asoziatzeko joera handiagoa den gai espezializatuekin baino.

Gai pertsonalak zein eguneroko gai arruntak soilik euskararekin lotzen dituztenak %9,9 eta %9,7 dira, hurrenez hurren. Norberarentzat garrantzitsuak diren gaiekin, soilik euskara lotzen dutenen proportzioak behera egiten du (%7,6); gauza bera gertatzen da gizarte gaiekin (%6,7). Hala ere, jaitsiera

nabarmenena ekonomiako eta zientzia zein teknologiako gaietan jazotzen da; soilik euskaraz egiten dutenak %4,0 eta %3,8 izanik batean eta bestean.

Hurrenkera hori apur bat aldatzen da zenbaki horri euskara eta hizkuntza hegemonikoa batera aipatzen dutenen ehuneko gehitzen badiogu, eta honela geratzen da: egunerokotasun gaiak (%22), gizarte gaiak (%19,9), gai pertsonalak (%19,8%) eta gauza garrantzitsuak (16,89%). Zientzia eta ekonomia nabarmen baxuago mantentzen dira (%8,7 eta %8,2).

ANTZEMATEA: GAIAK




7. grafikoa: Euskara nolako gaiekin lotzen den. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Aurreko atalean aipatutakoari lotuta, gaztelania eta frantsesarekin batera *hedabideetan, lanean eta ikasketetan* presentzia handitzen zuen neurrian, gaien alor honetan ere *egunerokotasun eta gizarte gaietan* pisua hartu du euskarak. Nolanahi ere, egoerekin gertatzen den gauza bera gertatzen da **gaiekin: euskarak ez du hiztunen arabera dagokion antzematea** (%22tik behera) eta hizkuntza hegemonikoek dituzten hiztun elebakarrak baino pertzepzio handiagoa dute gai guztiei lotuta. Egoera diglosikoaren eta antzematearen arteko lotura ageri da.


Halaber, datu horren azalpena topatzeko hizkuntza profiletako emaitzak aletu behar ditugu. Euskarak bere kasa gai ezberdinekin dituen asoziazioak **euskadunen asoziazioetatik** datoz ia osotasunean: gai pertsonalak edo egunerokotasuna ia herenak euskararekin bakarrik lotzen ditu eta beste hizkuntzekin batera %60tik gora. Proporzio hori jaitsi egiten da %24,6 eta %21,2 artera gauza garrantzitsu edo gizarte gaietarako. Zientzia edo ekonomiarako %10a ozta-ozta gainditzen du. **la euskaldunen artean**, berriz, euskarak bere kasa ez du apenas asoziaziorik, baina gehien nabarmentzen den eremua gizarte gaiak dira (gaztelania eta frantsesarekin batera betiere). **Euskaldunak ez direnek**, kontrara, ia ez dute lotura eksklusiborik egiten euskararen eta proposatutako gai ezberdinen artean.

EUSKALDUNA




EUSKARA EUSKARA + GAZTELANIA/FRANTSESA GAZTELANIA/FRANTSESA BESTEAK

IA EUSKALDUNA



ERDALDUNA



8. grafikoa: Gaiak hizkuntza profilaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

1.3. EUSKARAREKIN LOTZEN DIREN MINTZAKIDEAK

Euskara hutsarekin gehien lotzen diren mintzakideak seme-alabak (%18,9), irakasleak (%14,5) eta gurasoak (%14) dira. Gutxiago lotzen direnak osasun profesionalak (%6,5) eta bezeroak (%5) dira. Euskararen eremu elebakarrak, hortaz, familia eremua (seme-alabak eta gurasoak) eta hezkuntza dira.

Euskararekin gehien lotzen diren mintzakideak seme-alabak dira (bai modu elebakarrean (% 18,9), bai beste hizkuntzekin batera %39,7).

Hizkuntza hegemonikoarekin batera euskara aipatzen dutenen ehunekoa gehitzen badiogu, zerrenda horrela geratzen da: seme-alabak (%39,7), irakasleak (%32,4), lagunak (%30,3), lankideak (%29,4) eta bezeroak (%25,9).

Hortaz, euskarak gaztelania eta frantsesarekin partekatutako mintzakideak aztertzean, etxeko eremuan seme-alabekin lotzen da euskara (%39,7), baina ehunekoa nabarmen jaisten da gurasoak (%23,1) eta bikotekidea (%21,8) aipatzean.

Kaleko eremuetan, berriz, irakasleak (%32,4) dira mintzakide aipatuena, baina lagunak (%30,3) eta lankideak (%29,4) euskararekin lotuta ageri dira ere, beste hizkuntzekin batera. Azpimarratzekoa da osasun profesionalen ehunekoa (% 22,6), oro har hizkuntza eskakizuna duen sektorea den neurrian.

Mintzakideen loturak aztertuta, ehunekoak hiztun kopuruarekin orekatuago agertzen dira:

euskaldunak %30 inguru dira, eta mintzakide mota batekin lotuta euskara aipatzen duten ehunekoa %21,8 eta %39,7 tartean dago.


Atal honetako datuak hizkuntza profilararen arabera aztertzen ditugunean, aurrekoetan bezala, euskaldunak dira euskara mintzakide gehiagorekin lotzen dutenak. Hurrenkera, ordea, biztanleria osoan ikusi dugun bera da. Erdaldunen artean ia ez dago euskara mintzakide batekin modu eksklusiboan ikusten duenik. Ia euskaldunen artean badira gutxi batzuk harreman pertsonal estuetako mintzakideak (seme-alabak, gurasoak eta bikotea) edo irakasleak ikusten dituztenak soilik euskararen esparru gisa. Hari horri tiraka nabarmentzen den datua, ia euskaldunen artean alaba-semeekin (%13,3) egiten duten lotura da. Profil honen barruan bigarren datu

nagusia gurasoak dira (%4,8) eta alaba-semeen datuak hirukoiztu egiten du.

Gaztelania eta frantsesarekin baterako agerpenetan, zatiketa errepikatzen da hizkuntza profilararen arabera.

Euskaldunen artean, bi hizkuntzak batera ageri dira ia mintzakide mota guztiekin. Ia euskalduna edo erdaldunen artean euskara ia desagertzen da edo erabat desagertzen da asoziazioetatik, seme-alaben kasuan izan ezik: ia euskaldunen %39,3k eta ez euskaldunen %18k euskara aipatzen dute gaztelania edo frantsesarekin batera seme-alabekin lotuta.

ANTZEMATEA: MINTZAKIDEAK



EUSKARA EUSKARA + GAZTELANIA/FRANTSESA GAZTELANIA/FRANTSESA BESTEAK


9. grafikoa: Hizkuntzak zein mintzakiderek lotzen diren.. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

EUSKALDUNA




EUSKARA EUSKARA + GAZTELANIA/FRANTSESA GAZTELANIA/FRANTSESA BESTEAK

IA EUSKALDUNA




ERDALDUNA



10. grafikoa: Mintzakideak hizkuntza-gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

1.4. EUSKARAREN BILAKAERA

Euskarak azken bost urteetan izan duen bilakaera eta aurrerantzean eduki beharko lukeenaz iritzia eskatu da. Bi datuak gurutzatuz gero, **herritarren multzo nagusiak (%40,6) uste du euskarak geroz eta presentzia handiagoa duela gizartean eta oraindik gehiago beharko lukeela**. Bigarren multzo nagusiak (%22,4) uste du euskarak presentzia irabazi duela eta dagoen bezala ondo dagoela. Hirugarren eta laugarren multzoek uste dute euskara beti egon den bezala dagoela, baina hauen artean bitan banatzen dira horrela jarraitu behar duela (%12,1a) eta presentzia handiagoa beharko lukeela (%10,8) uste dutenak. Kontrako muturrean, geroz eta presentzia txikiagoa duela eta izan beharko lukeela uste dutenak oso gutxi dira %2,4 dira.



11. grafikoa: Euskararen bilakaerari buruzko iritzia. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskarak azken urteetan izan duen bilakaeraren inguruko pertzepzioetan alde txikiak aurkitu ditugu hizkuntza profilen arabera. Aldiz, euskarak etorkizunean izan beharko lukeen presentzian bai, aldeak agertzen dira. Euskaldunak dira indar handiagoz euskararentzat leku gehiago desiratzen dutenak (%80,2). Ia euskaldunen artean ere gehiengo da hori nahi dutenak (%52,4). Erdaldunen artean proportzio antzekoetan banatzen dira dagoen moduan ondo dagoela uste dutenena

(%46,7) eta presentzia gehiago nahiko luketenena (%43,6). Zerbait azpimarratu behar da: gehiengoak (%40,6) pentsatzen du presentzia handiagoa izan beharko lukeela jendartearen eta bigarren multzoak (%22,4) dagoen bezala ondo dagoela, baina **oso-oso gutxi dira euskarak presentzia txikiagoa izatea aldarrikatzen dutenak (%2,4)**.

1.5. ANTZEMATEAREN INDARGUNE ETA AHULEZIAK

Hasteko, euskarari hiztun kopuruaren arabera dagokion antzemate maila ez da agertzen, ez egoeretan, ez gaietan, ez mintzakideetan. Euskal hiztunak egoera elebidunean bizi dira, eta askotan bi hizkuntzekin lotzen dituzte egoera, gai edo mintzakideak, baina ia euskaldunen artean eta erdaldunen artean, euskararen loturak oso ahulak dira. Ez dituzte lotzen ez egoerekin, ez mintzakideekin, ez gai espezifikoeekin. Eta lotura horiek ia-ia erabat desagertzen dira erdaldunen kasuan.

Ahulezia: hiztun kopuruaren arabera dagokiona baino antzemate txikiagoa du euskarak. Erdaldunen artean euskararekiko asoziazioak ia erabat desagertzen dira.

Egoerei dagokienez, hutsune nagusiak sareetan eta zinema/literatura/ antzerkian daude. Gainera, ulertezina da erdaldunek euskara eskolarekin ez lotzea (edo ia euskaldunek gutxi lotzea), D eredua EAEn nagusia delako. Agian iraganeko bizipen pertsonalen pisua dago tarteko.

Gaiei erreparatuta, ahulgune nagusia gai teknikoetan (ekonomia, zientzia) ageri da. Mintzakideei dagokienez, berriz, euskararekiko loturak indartsuagoak dira, gaien edo egoeren kasuan baino indartsuago. Horrek iradokitzen du agian antzematea handitzeko bideek pertsonetatik igaro behar dutela. Euskara (gehiago) lotzen da pertsona jakinekin.

Nabarmentzekoa da seme-alabak direla mintzakide nagusiak (euskara transmititzearen garrantzia iradokitzen duena), baina euskararen erabilera apalagoa da helduen arteko harremanetan (bikotearekin edo lagun artean aritzeko adibidez).

Hizkuntza gaitasuna kontuan hartu gabe, gehiengoak (%65,2) pentsatzen du euskararen presentzia gero eta handiagoa dela. Adostasun maila altua da euskaldunen eta erdaldunen artean. Bestalde, euskaldunek (%80,2) pentsatzen dute presentzia gehiago eduki beharko lukeela eta erdaldunen artean ere gehiengoak horrela pentsatzen du (%43,1), baina beste kopuru adierazgarri batek (%41,9) uste du dagoen bezala ondo dagoela.

Indargune nagusia, beraz, orokorrean euskarak duen presentziaren pertzepzioan dago, areagotu dela baieztatzen baita. Era berean, euskararen presentzia handiagoa izateko nahiak hizkuntza bultzatzeko ekintzei babes soziala ematen die.

0. metodologia

1. antzematea

2.

ASOZIA- ZIOAK

3. aktitudeak

4. atxikimendua

5. aktibitatea

6. ondorioak

7. taulen aurkibidea

8. grafikoen aurkibidea

9. irudien aurkibidea

Marka asoziazioak jendartean barreiatutako markaren ezaugarriak dira. Atributu horiek funtzionalak edo emozionalak izan daitezke. Asoziazioek zedarrituko dute hizkuntzaren posizionamendua.



2.1. ASOZIAZIO FUNTZIONALAK

Asoziazio funtzionalen atala hizkuntzari egozten zaizkion berezko ezaugarriek osatzen dute, batetik, eta, bestetik, ezaugarri horien ondorioz hizkuntzak hartzen duen balio praktikoak.

2.1.1. Atributu funtzionalak

Euskarari egotzitako atributu funtzionalak

Ikerketaren emaitzen arabera, honakoak dira gehiengo batek euskarari egozten dizkion atributu funtzionalak:




4. irudia: Euskarari egotzitako atributu funtzionalak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Berezko ezaugarrien eremuan euskarekin gehien lotzen den funtzioa estetikoak litzateke (polita da %77,9arentzat). Era berean, gehiengo batek (%70,7) hizkuntza zaila izatea egozten dio. Jarraian, antzeko proportzioetan, etorkizuna izatea eta linguistikoki aberatsa izatea lotzen zaio (%65etik gora).

Polarizatutako emaitzak dituzten atributuak

Beste ezaugarri batzuetan, berriz, ez dago adostasunik eta herritarrak bi multzo polarizatutan banatzen dira. Hori da euskararen balio praktikoaren eta jasotzen duen babesaren inguruko iritzia.




5. irudia: Euskararen atributu polarizatuak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskararen balio praktikoari dagokionez iritziak oso polarizatuta daude: %44,9ak euskarak beren bizitzetan nolabaiteko balio praktikoa baduela uste du. Aitzitik, %39,4k uste du beren bizitzetan euskarak ez duela balio praktikorik. Azkenik, %15,7ak tarteko zerbaitetan dagoela uste du.

Euskarak jasotzen duen babesari buruzko iritzietan, gehiengoak jarrera neutroa badu ere, polarizatutako bi talde ikus daitezke: alegia, behar baino babes gutxiago duela pentsatzen dutenak (%23,2) alde batean, eta babestuegia dagoela pentsatzen dutenak (%34,5) bestean.

Atributu funtzionalen emaitzen sintesia


Ondoren ageri den grafikoak asoziazio funtzionalak eta hauen aldeko ustearen ehunekoak laburbiltzen ditu. Hala izanik, ikus daitekeen legez, euskarekin gehien lotzen den funtzioa estetikoa litzateke (polita da %77,9arentzat), zaila izatearekin batera (%70,7). Jarraian, antzeko proportzioetan, etorkizuna izatea eta linguistikoki aberatsa izatea lotzen zaizkio (%65etik gora). Balio edo funtzio praktikoa egozten diotenen proportzioa salto batera dago (%44,9). Proportzio txikiagoak dituzte euskara babestuegia dela uste dutenak (%34,5).



12. grafikoa: Euskarren atributu funtzionalak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskararen atributu funtzionalak, hizkuntza gaitasunaren arabera

Adierazgarria da, hizkuntza gaitasun ezberdinak aintzat hartuta ere, bere horretan mantentzen direla euskarari egotzitako atributu funtzionalen joerak. Halere, ez proportzio berdinean. Baikortzat katalogatutako ezaugarrietan joera askoz markatuagoa da euskaldunen artean, portzentaje altuagokoa alor guztietan. Modu argian ikus daiteke ondorengo grafikoan:



POLITA, EDERRA ZAILA ETORKIZUNA DU LINGUISTIKOKI ABERATSA BALIO PRAKTIKOA DU NIRETZAT BABESTUEGIA

13. grafikoa: Euskararen atributu funtzionalak hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Bi ezberdintasun dira aipagarriak. Batetik, balio praktikoari dago-kionez, euskara hobeto edo okerrago jakin, egotzen zaion balio praktikoak ere gora edo behera egiten du. Zentzua du, lehenengo pertsonan formulatuta egotean euskaldunek balio praktiko gehiago egotzteak (%82,7), baina ia euskaldunen %46,79k soilik egotzen dio balio praktikoa, horrek esan nahi du **ia euskaldunen erdiak baino gehiagok ez diola balio praktikorik ikusten.**

Bestetik, euskara mailak eragina du hizkuntza zaila edo erreza dela iriztean. Euskaldunen %35ak uste du euskara hizkuntza zaila dela, ia euskaldunen eta erdaldunen kasuan berriz portzenta-

jeak askoz altuagoak dira: ia euskaldunen %76,2 eta erdaldunen %89,0. Euskaldunen artean oso sakabanatuta dago hautematea: esan bezala %35,6ak uste du hizkuntza zaila dela, %23,6ak ez bata ez bestea eta %40,8k hizkuntza erreza dela. Hiru multzoak, beraz, orekatuta egongo liriateke. Oso bestelakoa da egoera ia euskaldunen eta euskaldunen kasuan, gehiengoaren iritziz euskara hizkuntza zaila baita ez bairik gabe. Ia euskaldunei dagonienez, %76,2k uste du hizkuntza zaila dela eta %5,7ak soilik hizkuntza erreza dela. Beste horrenbeste gertatzen da erdaldunekin, baina are markatuago: %89ak uste du hizkuntza zaila dela eta %4,5ak bakarrik dio hizkuntza erreza dela.

Euskararen atributu funtzionalak, ideologia politikoaren arabera


Ideologia politikoari dagokionez ere, ikusi dezakegu nola datuak zertxobait aldatzen diren. Joera orokorra mantentzen den arren, **ezkerreko ideologia dutenen artean hobeto baloratzen da euskara, eskumako ideologia dutenen artean baino. Beste horrenbeste gertatzen da abertzaletasunarekin ere: koerlazio zuzena dago alor guztietan abertzaletasunaren eta euskarari ezaugarri positiboak atxikitzearen artean, zenbat eta euren burua abertzaleagozat jo, euskara hobeto baloratzen da.** Baikorrak diren ezaugarri guztietan, alegia, polita, etorkizuna du, balio praktikoa du, linguistikoki aberatsa da, ikusten dugu nola grafikoak goranzko joera hartzen duen ezaugarri guztietan abertzaletasun maila altura eta oso ezkerreko ideologiara hurbildu ahala. Kontrakoa gertatzen da negatibotzat hat daitezkeen ezaugarrietan (zaila eta babestuegia izatea).

Horren adibide gisa, esaterako, balio praktikoari dagozkion datuak erabili daitezke. Hor koerlazio zuzena ikusiko dugu abertzaletasun mailaren eta euskarari balio praktiko handiagoko egotzearen artean, ia linealki igotzen baita abertzaletasun mailak gora egin ahala: bat ere ez abertzalea (%19), abertzaletasun txikia (%36), abertzaletasun moderatua (%37), abertzalea (%64), oso abertzalea (%68). Eta berdin gertatzen da eskuin-ekzer

ardatzean ere: oso eskuineko eta eskuinekoa (%27), zentrokoa (%41) ezkerrekoa (%53) eta erabat ezkerrekoa (%57). Edonola ere, hau horrela gertatzen da ezaugarri baikor guztiekin.


Aipatu bezala, kontrakoa gertatzen da ezaugarri negatiboetan, zenbat eta eskuinekoago eta ez abertzaleago izan, orduan eta euskara zailago ikusten da eta gehiago baieztatzen da babestuegi dagoela. **Zailtasunari dagokionez, ez abertzale eta abertzaletasun txikia dutenen artean hori da euskararekin gehien lotzen den atributua (%84 eta %87 hurrenez hurren),** eta baita eskuineko edo oso eskuinekoak direnen artean ere (%74). Zailtasunari buruzko ustea eta abertzaletasun maila kontrako norantzan eskutik doazela garbi ikusten da kopuruetan: bat ere ez abertzalea (%87), abertzaletasun txikia (%84), abertzaletasun moderatua (%73), abertzalea (%62), oso abertzalea (%51). Gauza bera eskuin-ekzer ideologiari erreparatuta, baina kasu honetan zentrokoek eta eskuinekoek bat egiten dute zaila dela baieztatzen duen kopuruan: oso eskuineko eta eskuinekoa (%74), zentrokoa (%74) ezkerrekoa (%66) eta erabat ezkerrekoa (%66). Edonola ere, ikusten da nola zaila izatearen ustea barreiatuta dagoen ideologia edozein izanik ere, nahiz eta ez maila berdinean.

Hona ideologia politikoari dagozkion datuak biltzen dituzten grafikoak:



POLITA, EDERRA ZAILA ETORKIZUNA DU LINGUISTIKOKI ABERATSA BALIO PRAKTIKOA DU NIRETZAT BABESTUEGIA

14. grafikoa: Abertzaletasun maila eta euskararen atributu funtzionalak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"




POLITA, EDERRA ZAILA ETORKIZUNA DU LINGUISTIKOKI ABERATSA BALIO PRAKTIKOA DU NIRETZAT BABESTUEGIA

15. grafikoa: Ideologia politikoa (eskuin-ezker) eta euskararen atributu funtzionalak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.1.2. Euskararen balio praktikoak

Balio praktiko zehatzei dagokienez, grafiko honetan jaso dugu euskararen funtzionaltasunaren gaineko pertzepzioa.




16. grafikoa: Euskararen balio praktikoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Ikus daitekeen bezala, **bost funtzio nagusi aitortzen zaizkio euskarari edo, beste era batean esanda, honako alorretarako uste du jendeak dela euskara baliagarri: baserriko gaiak lantzeko, eskolako gaiak lantzeko, lana topatu, hobetu edo mantentzeko, lagun artean informalaritzeko eta unibertsitateko ikasketak egiteko.** Guzti hauek %65etik gora. Gizartean integratzeko baliagarritasuna ere proportzio altuan ageri da (%58).

Baina beste aldean, euskararen erabilera praktiko emozionalari dagozkion datuak oso deigarriak dira. **Modu orokorrean galdetzen denean maila emozionalean komunikatzeko zenbat balio duen, euskarak indize positibo ertain bat eskuratzen du (%55,8). Baina horren adierazpide posibleetan zehatzago sartzen garenean (umeei errieta egiteko, eztabaidatzeko, txistek egiteko, haserrea adierazteko), balioak erdiko puntura, ez positibo ez negatibo, jaisten dira; eta iraintzeko kasuan, batere ez aldera mugitzen da.**

Emaitzak beste era batera landuta, eta datuak orokortuta, euskarak gauza hautarako balio du eta beste hauetarako gutxi edo bat ere ez:




6. irudia: Euskararen funtzio praktikoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Datuen harira azpimarra zenbait. Batetik, oraindik euskara baserriko gaietara lotuta ageri zaigu, horretarako aitortzen zaio balio gehien. Akademiara etorrira, bai eskolako gaiak joratzeko, bai unibertsitate ikasketak egiteko balioa ematen dio gehiengoak, baina ez maila berean. Ikusten dugu nola ia 13 puntuko aldea dagoen osatutako indizearen arabera. Ikasketak mailak gora egitean balio gutxiago ematea, alegia, goi mailako ikasketekin gutxiago lotzea, deigarria da.

Euskarari balio gutxi ematen zaion alorretan, bestalde, batzuetan hizkuntzak berak izan ditzaken gabeziatan bilatu beharko dira arrazoiak, dela lexiko urria, tradizio falta edo haren transmisio biderik ez izatea. Hori da, adibidez, irainen eta txisteen kasua. Baina, beste batzuetan, egoera emozionalari lotutako alorretan, hain zuzen, adibidez, haserrea adierazteko, umeei errieta egiteko edo eztabaidatzeko egoeratan, kasu hauetan guztietan, hizkuntzaren beraren gabeziekin baino, asoziazio sinbolikoekin dute zerikusi handia emaitza hauek. Euskara ez da haserre egoerekin lotzen.

Euskararen balio praktikoak hizkuntza gaitasunaren arabera

Euskararen balio praktikoaren emaitzak hizkuntza gaitasunaren arabera aztertuta, ikus daiteke euskaldunen artean euskarari balio praktiko handiagoa ematen zaiola, gutxiago ia euskaldunen artean eta nabarmen gutxiago erdaldunen artean. Halere, nabarmentzekoa da joerak oso antzekoak direla hiru profiletan, intentsitatea zeharo ezberdina bada ere.



17. grafikoa: Euskararen balio praktikoak hizkuntza gaitasunaren arabera



Baserriko gaiak lantzeko aitortzen zaio balio gehien oro har, baina euskaldunen artean eskolako gaiak jorratzeko atala gailentzen zaio. Agerian geratzen den beste ezberdintasun bat honakoa da: euskaldunen artean funtzio praktiko pixka bat gehiago ikusten zaio lagun artean zein unibertsitatean aritzeko, lana topatzeko baino. Ia euskaldunen artean lagun arteko funtzio horrek koska bat behera egiten du nabarmen eskola, lana edo unibertsitatearen atzetik. Ia euskaldunen artean, halaber, deigarria da unibertsitateko ikasketetarako aitortzen zaion balio altua (%71).


Aparteko ohartarazpena merezi du "gizartean integratzeko" atalak. Euskaldunen artean balioa ematen baitaia, oso maila apalean ia euskaldunen artean, eta gutxi erdaldunen artean.

Azkenik, aurretik aipatu bezala, oso adierazgarria da nola erabat errotuta dagoen euskarak egoera jakinetarako ez duela balio. Ia euskaldunen eta erdaldunen aburuz, euskarak ez du balio ez iraintzeko, ez umeei errieta egiteko, ezta eztabaidatzeko edo txistek egiteko ere. Erdaldunen artean oso markatuak dira uste horiek, baina nabarmena da nola euskaldunen artean ere eragina duten gainerako alorrekin konparatuz gero.

Euskararen balio praktikoak ideologia politikoaren arabera

Ideologia politikoari dagokionez, ikus daiteke aurretik aipatutako joerak bere horretan dirauela: zenbat eta ardatz ideologikoan ezkerregero, euskarari balio handiagoa aitortzen zaio, eta zenbat eta eskuinerago, kontrakoa, balio urriagoa alor guztietan. Beste horrenbeste gertatzen da abertzaletasunari dagokionez, zenbat eta abertzaleago balio altuagoa aitortzen baitaia euskarari alor guztietan.





18. grafikoa: Euskararen balio praktikoak ideologia politikoaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.1.3. Atributu funtzionalen indargune eta ahuleziak

Hasteko, euskararen edertasunari dagokionez, hizkuntza polit gisa baloratua izatea jendarteko sektore ezberdinetan, baikorki baloratu beharreko datua da bere horretan, batetik, hiztunen harrotasuna areagotu dezakeelako, bestetik, hiztun berriak erakartzea ekar dezakeelako. Halere, **hizkuntza gutxituen kasuan bere funtzio nagusia estetikoak izateak badu arriskua, ez bazaio era berean funtzionaltasun praktikoa aitortzen**. Izan ere, hizkuntza erabilera sinbolikora mugatzea ekar dezake, hizkuntza gutxituei dagozkien ikerketa ezberdinek ohartarazten dutenez. Zentzu horretan, **ahulgune nabarmena da ia euskaldunen artean erdiak baino gehiagok balio praktikorik ez aitortzea**.

Baikorki baloratu behar da baita ere euskara etorkizuneko hizkuntza gisa ikustea, nahiz eta etorkizun pertzibitu horren nolakotasunari jarri behar zaion arreta (ikus erabilera egoerei buruzko datuak).

Bestalde, euskara hizkuntza zail gisa hartzea arazotsua izan daiteke, hiztun berriak eskuratzea galarazi baitiezaioke.

Are gehiago hizkuntza gutxitua izanda, zailtasun hori ez ikasteko argudio, aitzaki edo autojustifikaziorako bidea izan baitaiteke. Ahulgunea da, era berean, ia euskaldunen artean euskarari egozten zaion balio praktikorik ematen.

Euskarak jasotzen duen babesari dagokionez ez dago adostasunik. Logikoa izan daiteke pertzepzio nahasi hori, alde batetik bere historia eta egoera gutxiagotua aintzat hartuta, edo, bestetik, gizarte eragile eta instituzioek euskara sustatzeko egiten duten ahalegin antolatuari erreparatuta.

Euskararen balio praktikoei dagokienez, asoziazio sinbolikoekin hertsiki lotutako irakurketak egin daitezke, baina baita hizkuntzaren marka identitateari edo produktu gisa aitortzen zaion funtzionaltasunari lotutakoak ere. Lehenengo eta behin, **euskara baserriarekin harremanetan ageri zaigu oraindik ere**.

Batetik, marka identitatearen ikuspuntutik, baserriari lotuta tradizio handia izatean, baliteke euskarari lexiko eta aberastasuna aitortzea alor honetan. Halere, gaur egungo euskararen erabilera eta esparruak ikusita, baliteke asoziazio hori imaginario kolektiboan txertatutako irudiari lotutakoa izatea gehien bat. Bestalde, **euskara eskolako gaiak jorratzeko hizkuntza egoki gisa agertzen zaigu, baina kasu honetan adierazgarria da euskaldunak direla funtzio hori gehien ematen diotenak, baserriko gaien ginetik**. Ifrentzuan, atentzioa ematekoa da goi mailako ikasketekin gutxiago lotzea, unibertsitatearekin, alegia.


Beste alde batetik, esan bezala, **maila emozionalean komunikatzeari buruz orokorrean aritzean, euskarak jasotzen du nolabaiteko balioa. Baina adierazpide eta egoera jakinetara jaistean, balio hori desagertzen da**. Gauzak honela, baieztatu daiteke, jendeak ez duela euskara baliagarri ikusten ez iraintzeko, ez umeei errieta egin edo eztabaidatzeko, ezta, umorearen kasuan, txisteak egiteko ere.

2.2. ASOZIAZIO SINBOLIKOAK

Asoziazio sinbolikoen atal honetan irudlteria kolektiboan euskarari lotuta egiten diren eraikuntza sinbolikoei erreparatuko zaie. Lehenengo diferentzial semantiko bidezko izenondo afektibo-baloratiboekin, eta, gero, hiztun prototipikoei egozten zaizkien ezaugarrien bidez.

2.2.1. Euskararen atributu sinbolikoak

Beheko grafikoan ageri da gehiengo batek euskararekiko egin dituen asoziazio sinbolikoen joeraren sintesia.



19. grafikoa: Euskararen atributu sinbolikoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"


Gauzak horrela, baieztatu daiteke Euskal Herriko populazioaren gehiengoak euskara ondorengo hiru atributuekin lotzen duela: euskara hizkuntza **autentikoa** (%79,6), **tradizionala** (%68) eta **maitatua** (%53,7) da gehien aburuz. Hiru ezaugarri hauen kasuan, oso gutxi dira euskara kontrako muturrekin lotzen dutenak (artifiziala= %7,7; moderno= %12,1; gorrotatua= %7,6).

EUSKARA DA...




7. irudia: Euskararen ezaugarri sinboliko partekatuenak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara hizkuntza zapaldua ala zapaltzailea den galderaren aurrean jarrera neutroa adierazten dutenak (%45,8) mutur batean zein bestean kokatzen direnak baino gehiago badira ere, posizionatzen direnen artean, hizkuntza zapaldua dela uste dutenak (%41,5) hizkuntza zapaltzailea dela uste dutenen (%12,6) hirukoitza baino gehiago dira.



8. irudia: Euskara zapaldua ala zapaltzailea. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"


Euskara **integratzailea** ala **baztertzalea** al da? **Jendea batu** ala **banatu** egiten al du? Aurreko bi ezaugarrien kasuan, euskara mutur positiboarekin lotzen dutenak (integratzailea dela eta batu egiten duela uste dutenak alegia), jarrera neutroa edo negatiboa adierazten dutenak baino gehiago izanik ere, ez dira populazioaren erdia izatera heltzen (%46,2 eta %41,6 hurrenez hurren). Kontuan hartzekoa da lautik batek pentsatzen duela euskara **baztertzalea** dela (%25) edo euskarak **jendea banatu** egiten duela (%24).



9. irudia: Euskara integratzailea ala baztertzalea. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.2.2. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, hizkuntza gaitasunaren arabera

Hizkuntza-gaitasunaren arabera, aldaketa nabarmenak agertzen dira euskaren irudian:



20. grafikoa: Euskararen irudia hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Korrelazio positiboa dago hizkuntza gaitasunaren eta euskara hizkuntza autentikoa dela pentsatzearen artean. Erdaldunen artean ere gutxi dira hizkuntza artifiziala dela uste dutenak (%10,8), baina alde esanguratsua dago euskaldunen pertzepzioarekin (%3,2).

Erdaldunek euskara hizkuntza tradizionaltzat dute (%73,2) euskaldunek baino neurri handiagoan (%57,6). Kontrako poloan, ia euskaldunak dira euskara modernotasunarekin gutxien lotzen dutenak (%7,5), erdaldunek (%10,9) baino gutxiago. Euskaldunen artean ere, modernotasun pertzepzioa murrizta da (%16,6).

Hizkuntza gaitasuna lotuta dago ere euskara maitasunarekin ala gorrotoarekin lotzen den neurriarekin. Gorrotoaren presentzia euskararen irudian oso txikia bada ere, aipatzekoa da ia euskaldunak direla gehien aipatzen dutenak (%9,3), erdaldunek (%7,9) eta euskaldunek (%6,2) baino gehiago.

Euskara hizkuntza zapaldua izatearen pertzepzioa bat dator hizkuntzaren ezagutza mailarekin. Euskaldunen %61,6k euskara hizkuntza zapaldua dela uste dute, ia euskaldunen %39,4 eta erdaldunen %30,2ren aldean. Beste aldetik, kopuru handia ez den arren, erdaldun gehiagok dute euskara hizkuntz zapaltzailatzat (%17) ia euskaldunek (%12,1) eta euskaldunek (%5,7) baino.

Laburbilduz, euskaldunek, erdaldunekin alderatuta, euskara autentikoago, maiteago eta zapalduago irudikatzen dute. Erdaldunek, berriz, hizkuntza tradizionalagotzat dute euskaldunek baino. Ehunekoak txikiak diren arren, aipatzekoa da euskarari ezaugarri negatiboak atxikitzea lotuta dagoela ere hizkuntza gaitasunarekin. Euskara artifiziala edo zapaltzailea dela diotenen artean gehienak erdaldunak

dira, eta ia euskaldunek jarraitzen diete.

Berriz, **ia euskaldunak gailentzen dira euskara gorrotatua dela esaten dutenen artean, eta beste taldeetan baino gutxiagok pentsatzen dute hizkuntz modernoa dela.**

Jarrerak polarizatuta zeudenetan, alegia, euskara kohesiorako tresna edo oztopo den gaiari gagozkiola, hizkuntza gaitasunak behera egiten duen neurrian, gora egiten du oso nabarmen hizkuntz baztertzaila dela eta jendea banatzen duela uste dutenen ehunekoak, eta alderantziz, behera egiten du hizkuntza integratzailea dela edo jendea batzen duela uste dutenena, polarizazioa areagotuz, bi muturretako ehunekoak ia berdintzera heltzen direlarik.

Hizkuntza gaitasunak behera egiten duen heinean, gora egiten du euskaldunak tradiziozaleak edo inposatzaileak direlako irudia. Aitzitik, behera egiten du izaera tolerantearekiko lotura.

Oso aipatzekoa da hizkuntza gaitasun mailak euskal hiztunaren adin pertzepzioan duen eragina.

Euskaldunen artean, gehienek adin guztietako euskaldunak irudikatzen dituzte (%51), eta adin jakinarekin lotzen dutenen artean, gehiago dira euskal hiztunak zahartzat dituztenak (%29,9) gatzetat dituztenak (%19,1) baino. Erdaldunen artean, berriz, gehiago dira euskal hiztunaren irudia adin jakin batekin lotzen dutenak edozein adinekoa izan daitekeela adierazten dutenak (%33,6) baino, eta gehiengoak euskaldun gazteak irudikatzen ditu (%40,2).

2.2.3. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, ideologiaren arabera

Datuek argi erakusten dute **euskararekiko asoziazio sinbolikoek oinarri ideologikoa dutela. Hain zuzen ere, euskara artifiziala delako irudia zuzenki lotuta dago aitortutako ideologia eskuindarrarekin, eta sentimendu ez abertzalearekin ere. Aitzitik, euskara autentikoa dela diote haien burua ezkertiarzat edo abertzaletzat dutenek. Patroi bera agertzen da euskara gorrotatua ala maitatua, zapaltzailea ala zapaldua, baztertzalea ala integratzailea den, eta jendea banatzen ala batzen duen inguruko iritzietan.**

hots, "arduratsuak", "apalak", "altruistak" eta "ausartak". Aitzitik, haien burua ez abertzaletzat dutenek neurri handiagoan esleitzen dizkiete euskal hiztunei konnotazio negatiboa duten ezaugarriak, hots, "arduragabeak", "boterezaleak", eta "norbekoiak".

Aipatzekoa da euskal hiztunen adinaren pertzepzioa abertzaletasun mailarekin lotuta dagoela ere. Zehazki, haien burua ez abertzaletzat dutenek nabarmen gazteago irudikatzen dituzte euskal hiztunak abertzaleek baino.


Hona ideologiari dagozkion diferentzial semantikoaren grafikoak, abertzaletasunaren eta ezker-eskuin ardatzaren arabera hain zuzen ere:

Euskal hiztunen irudia aldatu egiten da ere ideologiaren arabera. Haien burua abertzaletzat dutenek neurri handiagoan esleitzen dizkiete euskal hiztunei konnotazio positiboa duten ezaugarriak,


Autentikoa, benetakoa vs. Artifiziala
Maitatua vs. Gorrotatua

Integratzailea vs. Baztertzalea
Jendea batzen du vs. Jendea banatzen du

Zapaltzailea vs. Zapaldua
Moderno vs. Tradizionala



21. grafikoa: Euskararen asoziazio sinbolikoak abertzaletasun mailaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"



22. grafikoa: Euskararen asoziazio sinbolikoak ideologia politikoaren (ezker-eskuin) arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.2.4. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, adinaren arabera


Gazteek euskaraz duten irudiak ezaugarri berezi eta kezkarri batzuk ditu. Hain zuzen ere, **gazteen artean (18-29 ute) nabarmen igotzen dira euskara hizkuntza tradizionala, baztertzalea eta ez hain maitatua dela pentsatzen dutenen ehunekoak** (gorrotatua dela pentsatzen dutenen ehunekoak igo egiten da ere).

Euskal hiztunen irudiari dagokionez, goikoarekin bat datorren joera agertzen da: **gazteek, beste adinetakoek baino gehiago irudikatzen dituzte euskal hiztunak "baserritar", "tradizional" eta "zahar" moduan.**

Autentikoa, benetakoa vs. Artifiziala
Maitatua vs. Gorrotatua

Integratzailea vs. Baztertzalea
Jendea batzen du vs. Jendea banatzen du

Zapaltzailea vs. Zapaldua
Moderno vs. Tradizionala



23. grafikoa: Euskararen asoziazio sinbolikoak adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.2.5. Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, herrialdearen arabera


Zalantzarik gabe, esan daiteke euskararen irudirik positiboena Gipuzkoan dagoela, eta ondoren, Bizkaian. Alde nabarmenarekin, gutxiago dira Nafarroan eta Araban euskara ezaugarri positiboekin (autentikoa, maitatua, integratzailea, jendea batzen du) lotzen dutenak, eta nabarmen igotzen dira Nafarroan eta Araban ere euskara ezaugarri negatiboekin (artifiziala, gorrotatua, zapaltzailea, baztertzalea, banatzen du) lotzen dutenak. Euskal hiztunen irudia ere negatiboagoa da Nafarroan eta Araban: gutxiago dira euskal hiztunak tolerantreak edo altruistak direla pentsatzen dutenak eta, aitzitik, gehiagok dituzte euskal hiztunak inposatzailetzat edo norberekoitzat. Azkenik, Araban eta Nafarroan gazteago iru-

dikutzen dituzte euskal hiztunak Gipuzkoan edo Bizkaian baino. Ipar Euskal Herrian agertzen den irudiak hainbat ezaugarri berezi ditu. Batetik, euskara inon baino maitatuago ikusten dute (%80,7), eta ia ez du inork uste gorrotatua denik (%0,8). Bestetik, euskal hiztunei dagokienez, beste herrialdeetan baino irudi idealizatuagoa (arduratsuak: %79,1, altruistak: %65,5, abenturazaleak, ausartak: %50,6) eta landatar-kontserbadoreagoa (baserritarak: %76,8, tradiziozaleak: %66,8, kontserbatzaileak: %49,9, zaharrak: %44,5) agertzen da. Bestalde, inon baino ehuneko altuagoak egotzi dizkiete "inposatzaile" (%23,2), "boterezale" (%31,3) eta "subertsibo" (%65,3) ezaugarriak.

Autentikoa, benetakoa vs. Artifiziala
Maitatua vs. Gorrotatua

Integratzailea vs. Baztertzalea
Jendea batzen du vs. Jendea banatzen du


Zapaltzailea vs. Zapaldua
Moderno vs. Tradizionala



24. grafikoa: Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, herrialdearen arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

2.2.6. Euskal hiztunei dagozkien atributu sinbolikoak

Euskal hiztunak nolakoak diren galdetuta, hona erretratua: gehien aburuz, euskal hiztunak **abertzaleak** dira (%60,7), **atseginak** (%60,4), eta **arduratsuak** (%56,7). Hiru ezaugarri hauetan, euskal hiztunak kontrako muturreko ezaugarriekin lotzen dituztenek ez dute %5a gainditzen (ez abertzaleak= %4,5); garratzak, zailak, liskarazaleak= %5; arduragabeak= %2,7). Erdiak baino gehiagok euskal hiztuna izatea **baserritarra** izatearekin ere lotzen du (%53,9); aitzitik, gutxi dira euskal hiztuna izatea hiritarra izatearekin lotzen dutenak (%12,9). Euskal hiztuna izatea lotuta dago ere **tradiziozalea** (%49,6) eta **tolerantea** izatearekin (%47,1). Gutxi dira euskal hiztunak berritzaileak (%13,2) edo inposatzaileak (%12,7) direla pentsatzen dutenak.




10. irudia: Euskal hiztunen irudia. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

ASOZIAZIO SINBOLIKOEN INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

Altruistak, ezkertiarak, apalak: gehiengoak uste du euskal hiztuna izatea ez dagoela lotuta ezaugarri hauek izatearekin ala ez izatearekin. Hala ere, posizionatzen direnen artean, nabarmenki gehiago dira euskal hiztuna izatea altruista (%41,5), ezkertiarra (%39) eta apala (%36,9) izatearekin lotzen dutenak norberekoa (%7,4), eskuindarra (%7,1) edo botere zalea (%12,1) izatearekin lotzen dutenak baino.

Emaizta guztiak modu sintetizatuan ikusteko, ondorengo grafikoan euskal gizarteak euskal hiztunekiko egiten duen asoziazio sinbolikoaren joera azaltzen da, bi ardatzetan agertzen diren izenondoek kenketa eginez:



25. grafikoa: Euskal hiztunekiko asoziazioak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Gehiengoaren aburuz, euskal hiztuna izatea ez dago lotuta otzana ala subertsiboa, abenturazalea ala kontserbadorea, edo progresista ala kontserbatzailea izatearekin.

Adinari dagokionez, gehienek uste dute euskal hiztunak gazteak zein zaharrak izan daitezkeela (%40,6). Mutur batean zein bestean posizionatzen direnen artean alde txikia dago. Hala ere, aipagarria da euskal hiztuna izatea **gaztea** izatearekin lotzen dutenak (%32,7) **zaharra** izatearekin lotzen dutenak (%26,7) baino gehiago direla.

Euskararen irudi partekatuena hiru ezaugarri osatzen dute: hizkuntza autentikoa, tradizionala eta maitatua da. Bestetik, irudi kontrajarriak dituzten bi talde ageri dira euskara eta jendarte-kohesioari gagozkiola: euskara integratzailea eta bateratzailea dela uste dutenak gehiago dira, baina talde esanguratsu batek pentsatzen du euskarak ondorio negatiboak dakartzala, alegia, jendea baztertzen eta banatzen duela.

Euskal hiztunen irudiaren osaketan ezaugarri ideologikoak, nortasunekoak eta demografikoak ageri dira. Ezaugarri adierazgarrienak izaera ideologikoa du: euskal hiztunak abertzaleak dira gehiengoaren gogoan. Dimentsio ideologikoan ere, adostasun txikiagoarekin bada ere, euskal hiztunak ezkertiarak direla agertzen da. Nortasunez, euskal hiztunak atseginak, arduratsuek, tradiziozaleak eta toleranteak direla uste dute gehienek. Adostasun txikiagoarekin, altruistak eta apalak direla agertzen da ere.

Demografikoki, euskal hiztunak baserritarak direlako irudia nagusitzen da. Aitzitik, nabarmentzekoa da euskal hiztunen irudiak ez duela adinik, edo bestela esanda, edozein adinekoa izan daitekeela. Hala ere, gehiago dira euskal hiztunak gazte irudikatzen dituztenak zahar irudikatzen dituztenak baino.

Aipatutakoa sintetizatuz eta atal batzuetan sakonduz, hauek izango lirateke asoziazio sinbolikoaren atal honetan ondorioztatutako indargune eta ahuleziak:

Indarguneak

Euskarari ezaugarri negatibo zalantzagabeak esleitzen dizkietenak gutxi dira, eta gauza bera esan daiteke euskal hiztunekiko asoziazioei buruz.

Euskal hiztunen adin hautemanari dagokionez, populazioaren gehiengoak (%40,6) adin guztietako euskaldunak irudikatzen ditu. Honez gain, **aipagarria da gehiago direla euskal hiztuna izatea gaztea izatearekin lotzen dutenak (%32,7)** zaharra izatearekin lotzen dutenak (%26,7) baino.

Ahuleziak

Euskara hizkuntza autentikoa, tradizionala eta maitatua da gehien aburuz. Izan ere, hiru hauek dira adostasun handiena lortu duten ezaugarriak.

"Autentiko"tasunak (ezaugarri aipatuena) konnotazio desberdinak eduki ditzake: alderik positiboenean, motibazio ideologiko edo politikoagatik artifizialki eraikia ez izatea, hots, hizkuntza batek eduki behar duen funtzio komunikatibo hutsarekin lotzea. Baina euskararekin lotuta nagusitzen diren hiru ezaugarri hauek osatzen duten irudi orokorrari erreparatu gero, **ematen du autentikotasun honek antzinako izaera mitiko bati egiten diola erreferentzia,** hizkuntzak egunerokotasunean arlo anitzetan bete behar duen funtzio komunikatibo arruntetik aldenduz eta hura oztopatuz. **Irudi honek bat egiten du euskal hiztunei gehiengo batek egozten dizkion bi ezaugarriekin ere, hain zuzen, baserritarak eta tradiziozaleak izatearena.**

Irudi landatar-kontserbadore idealizatu hau muturrera heltzen da Ipar Euskal Herrian.

Han, euskal hiztunen adin hauteman zaharragoa ere agertzen da.

Arreta berezia merezi duten bi atal aipatu behar dira. Batetik, gazteen pertzepzioa dugu.

Izan ere, **euskararen irudi zaharkitua areagotu egiten da gazteen artean. Gazteenentzat, euskara baserritar tradiziozale gehienbat zaharrek hitz egiten duten hizkuntza tradizionala da.** Bestetik, Araban eta Nafarroan agertu den euskararen eta euskal hiztunen irudia dago.

Azkenik, aipatzekoa da euskara gizarte kohesiorako tresnatzat dutenak jarrera neutroa edo negatiboa adierazten dutenak baino gehiago badira ere, ez direla populazioaren erdia izatera heltzen; eta, orobat ere, kontuan hartzekoa da lautik batek pentsatzen duela euskara baztertzailea dela (%25) edo euskarak jendea banatu egiten duela (%24,3).


- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak

3. AKTITU-DEAK

- 4. atxikimendua
- 5. aktibitatea
- 6. ondorioak
- 7. taulen aurkibidea
- 8. grafikoen aurkibidea
- 9. irudien aurkibidea

3.1. SENTIMENDUAK EUSKARAZ EGITEAN (EDO BESTEEK EUSKARAZ EGITEAN)

Grafiko honetan agertzen diren datuek euskal herritarrek euskaraz mintzatzean edo beren ingurukoek euskaraz egitean dituzten sentimenduen joera adierazten dute. Ikus daitekeenez, **ia denek joera positiboa dute; gehiengo argi bat lasai, (%61,9), ondo (%57,1), errespetatu (%55,7) eta onartu (%50,7) sentitzen da. Aldiz, alde negatibora jotzen duen sentimendu bakarrak euskararen gaitasunarekin du harremana.** Gutxiarik baina gehiengo ez gaitasunean kokatzen da (%40,3).



26. grafikoa: Sentimenduak euskaraz egitean (edo besteek egiten dutenean) Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskaraz hitz egitean hiztunak...




11. irudia: Sentimenduak euskaraz egitean (edo besteek egiten dutenean). Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Kontrako muturrean ageri diren kopuruetan nabarmen baxuagoa dira mesprextatuta (%9,5), txarto (13,8) edo urduri (12,1) sentitzen direnak. Onartuta edo baztertuta sentitzeari dagokonean, ordea, gehienak, esan bezala, onartuta (%50,7) sentitzen diren arren, %27,1ak ez bata ez beste adierazi du eta %22,2ak baztertuta sentitzen dela dio.

Datuak sakabanatuago ageri dira baloratiboagoa den "harrotasunean". Gehiengo (%48,5) ez da harro ez lotsatuta sentitzen euskaraz aritzean, baina oso hurbil jarraitzen dio "harro" sentitzen direnen kopuruak. Gutxiengo dira, ordea, lotsatuta sentitzen direnak (%10,3).


Gai edo ez gai sentitzea da datu erabat polarizatuak dituen alor bakarra. %40,3ak euskaraz hitz egiteko ez gai edota ingurukoek ulertzeko ez gai sentitzen dela adierazi du. Aitzitik, gai sentitzen direnak %33,7 dira. Azkenik, beren buruak tarteko bidean kokatzen dituztenak %26,0 dira.



12. irudia: Euskaraz gai / ez gai sentitzea. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3.1.1. Sentimentuak hizkuntza gaitasunaren arabera

Hizkuntza gaitasunaren arabera aztertuta, datu esanguratsuak ageri dira. Lehenengo hurbilpenerako, ikusi diferentzial semantiko bidez adierazitako sentimentu pareen kenketatik abiatuta sortutako grafikoa:



27. grafikoa: Sentimenduak hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Grafikoak erakusten duen gisan, euskaldunen kasuan, sentimentu positiboak era nabarian gailentzen dira. Euskaraz hitz egitean gehien aipatutakoa ondo sentitzea da (%87,5) eta kontrako muturrean daudenak oso gutxi dira (%2,3). Gauza bera gertatzen da gainerako ataletan ere. Erantzunen araberako ordenean: gai (%79,5) vs. ez gai (%5,2); onartuta (%75,8) vs. baztertuta (%2,7); errespetatua (%72,9) vs. meprextatua (%1,0); harro (%74,2) vs. lotsatuta (%3,2); lasai (%72,7) vs. urduri (%12,6). Halere, azpimarragarria da sentimentu polarizatua dela nagusi, kasu honetan alde baikorrera. Hau da, adjektibo pare guztietan "ez bata ez beste" erantzun dutenen kopurua %10-26 bitartean dago.

la euskaldunen kasuan argazkia aldatzen da. Sentimendu positiboak nagusitzen dira oraindik, gaitasunean izan ezik, ez gai sentitzen direnak gehiago baitira gai sentitzen direnak baino. Hala ere, nahiz eta balantza alde positibora orekatu, sentimentu positiboaren kopuruak apalagoak dira eta negatiboek askoz indar handiagoa dute euskaldunen kasuan baino. Erantzunen araberrako ordenean: ondo (%53,8) vs. txarto (%10); errespetatua (49,7) vs. meprextatua (%8,1); harro (%39,9) vs. lotsatuta (%11); onartuta (%44,5) vs. baztertuta (%22,6); lasai (%47,6) vs. urduri (%20,7); gai (%25,7) vs. ez gai (%37,1). Horretaz gain, azpimarragarria da askoz gehiago kokatzen direla sentimentu neutroan euskaldunak baino (%32-50 artean). Esaterako, harro edo lotsatuta parean, gehiengoak (%49,1) ez bata ez beste erantzuten du, eta beste


paretan ere erantzun neutro horretan kokatzen direnak askoz gehiago dira, baina bereziki errespetatu vs. meprextatu atalean (ez bata ez beste %42,2).

Azkenik, erdaldunen sentimentuen hurrenkerak bat egiten du joera orokorrarekin. Kasu honetan nabarmentzen dena haiek sentitzen duten ez gaitasuna da, handia izanagatik (%61,8). Beste ataletan sentimentu positiboak nagusitzen dira, baina maila apalean eta sentimentu ezkor eta neutroen kopuru handiagoekin. Gainera, datuen irakurketa ezin da berdina izan hizkuntza ez dakiten kasuan, sentimentu positiboek alderantziz eragin ahal diotelako euskarari. Adibidez, euskaraz jakin gabe besteek euskaraz adierazi baitezake, hizkuntzarenganako interes falta, alegia.

Hona zerrenda osoa: gai (%9,7) vs. ez gai (%61,8); lasai (%60,4) vs. urduri (%14,9); errespetatua (%47,5) vs. meprextatua (%15); ondo (40,7) vs. txarto (%21,8); harro (%22,3) vs. lotsatuta (%14,2); onartuta (%38) vs. baztertuta (%33,4). Aipagarriak dira azken bi pare horiek, non lotsatuak sentitzen direnak ez dauden harro sentitzen direnen urruti, eta gauza bera onartu eta baztertu sentimentuekin. Azkenik, erdaldunen artean ere indartsuagoak dira sentimentu neutroak euskaldunen artean baino (%22-64), eta ia euskaldunekin gertatu bezala, gehiengoak (%63,5) neutro agertzen da harro edo lotsatuta parean.

3.1.2. Sentimentuak ideologia politikoaren arabera

Hizkuntza gaitasunaren arabera aztertuta, datu esanguratsuak ageri dira. Lehenengo hurbilpenerako, ikusi diferentzial semantiko bidez adierazitako sentimentu pareen kenketatik abiatuta sortutako grafikoa:



28. grafikoa: Sentimenduak ideologia politikoaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"


Atal askotan gertatu bezala, gai-ez gai sentimentuan koerlazio zuzena dago bai abertzaletasun mailarekin eta baita ezkerreko edo eskuineko izatearekin. Bietan ala bietan, grafikoa linealki aldatzen doa. Izan ere, sentimentuetatik harago, lagineko erantzun soziodemografikoetan ere koerlazioa dago euskara gehiago jakitearen eta abertzaleago eta ezkerreko izatearen artean. Gainerako ataletan ere ondorioa marka-txosten osoan zehar ataratako berdina da. Euskararekin lotutako sentimentu positiboak askoz handiagoak dira abertzaletasun mailak gora egin ahala eta

beste horrenbeste zenbat eta ezkerrekoagoa izan. Abertzaleen eta ezkerrekoen artean sentimentu positiboak nagusi dira, baina abertzale ez direnen eta eskuinekoak direnen artean emaitzak sakabanatuago daude atal guztietan, baina batez ere onartuta edo baztertuta sentitzean. Abertzale txikiak edo bat ere abertzaleak ez direnen artean heren bat sentitzen da baztertuta (%31,4 eta %34,2), beste heren bat onartuta (%36,2 eta %33,5) eta beste herena ez bata ez beste (%32,4 bi kasuetan).

3.1.3. Sentimentuak herrialdearen arabera

Herrialdeen araberako datuetan, Gipuzkoan askoz ere altuagoak dira sentimentu positiboak, esaterako %71,2 dira euskaraz hitz egitean ondo sentitzen direnak. Harrotasunari dagokionez, Gipuzkoan inkestatuen %51,2 harro sentitzen da euskaraz hitz egiten duenean, Nafarroan %27,9ak bakarrik aitortu du harro sentitzen dela eta Iparraldean ostera %44,1ak erantzun du harrotasuna sentitzen dutela euskaraz mintzatzen direnean.


Gaitasunari dagokionez, herrialdearen arabera ere aldeak sumatzen ditugu, datu soziolinguistikoekin bat etorritz: Gipuzkoan gai direnen zenbakia altuagoa da (%54,1 da) eta Nafarroan baxuena (%18,9 gai sentitzen da euskaraz hitz egiteko bakarrik, Iparraldean baino baxuago, hain zuzen ere, %21,4koa delako).



29. grafikoa: Sentimenduak herrialdeka

3.1.4. Sentimentuak adinaren arabera

Adinari dagokionez, aintzat hartzeko zenbait datu bat agertzen zaizkigu. Adin tarte gazteenak (18-29 eta 30-44 urte) adin tarte zaharragoekin alderatuz gero, askoz ahulagoak dira sentimentu positiboak negatiboak baino. Adin tarte horietan euskaraz mintzatzeko gai direnak gehiago dira, eta hartara gehiago sentitzen dira gai aipatu adin tarte zaharragoetakoak baino (45-64, +65 urte). Halere, gazteen artean ez-gai sentitzen direnen kopurua ere aintzat hartzekoa da, 18 eta 29 urte bitartean %31,1 sentitzen da ez-gai, eta 30-44 adin tartean %35,4.



30. grafikoa: Sentimenduak adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3.2. EUSKARA EZAGUTZEAREN DESIRAGARRITASUNA

Beste sentimentuetan, azpimarratzekoa da gazteagoen artean askoz gutxiago sentitzen direla onartuak eta askoz hedatuago dagoela baztertua sentitzea.

SENTIMENDUA	GUZTIRA	ADIN TARTEA			
		18-29	30-44	45-64	65 +
Baztertua	22,2	29,5	29,1	17,7	17,4
Ez bat ez beste	27,1	25,8	35,1	25,3	22,4
Onartua, integratua	50,7	44,7	35,8	56,9	60,1

1. taula: Baztertuta / onartua sentitzea, adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Onartua sentitzeari dagokionez, 65 urtetik gora %60,1 sentitzen da onartua; 45-65 urte bitartean %56,9; 30-44 adin tartean %35,8; eta %44,7 gazteenen artean (18-29 urte). Baztertuta sentitzen direnen kopuruak esan bezala altuagoak dira adin tarte gazteenetan, 10 puntu baino gehiagoko aldearekin. 45-65 adin tartean eta 65etik gorakoan artean %17,7 eta %17,4 sentitzen dira baztertuta hurrenez hurren; 18-29 tartean, berriz %29,5 eta 30-44 tartean %29,1.

Beste horrenbeste gertatzen da lasai urduritasunarekin, urduriago sentitzen dira 18-29 eta 30-44 adin tartetean:

SENTIMENDUA	GUZTIRA	ADIN TARTEA			
		18-29	30-44	45-64	65 +
Urduri	15,1	21,3	23,4	11,2	9,2
Ez bat ez beste	22,9	20,6	32,0	20,1	19,0
Lasai	61,9	58,1	44,6	68,6	71,8


2. taula: Urduri / lasai sentitzea, adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Norberak euskaraz hitz egitea ingurukoek nola hartzen duten edo hartuko luketen galdetuta, erantzun gehienetan etxeokak jotzen dira, oro har, ondoen hartuko luketenen modura. Hain zuzen ere, %54,6ak uste du beren etxekoei gustatzen zaiela edo gustatuko litzaiekeela norberak euskaraz hitz egitea, nahiz eta beste %39,2ak irizten dion berdin zaiela euskaraz hitz egitea edo ez. Etxea da, hartara, nahiz eta muga garrantzitsuekin, euskararen konfiantzazko esparru nagusia, lagunena eta lankideen giroaren gainetik. Eremu honetan ia-ia berdindu egiten baitira kopuruak.


Hartara, inkestatuena %46,6rentzat, beren lagunek gustokoa dute beraiekin euskaraz mintzatzea edo gustatuko litzaiekeela uste dute behintzat, baina beste horrenbeste dira, %45,5, euskaraz hitz egitea edo ez, laguneri berdin zaiela uste dutenak. Oso berdintsuak dira emaitzak lankideen kasuan, %46,3ak uste baitu lankideei gustatzen zaiela edo gustatuko litzaiekeela eta %45,3k berdin zaiela dio. Oro har, kasu guztietan baxuak dira ingurukoek euskaraz egitea gustatuko ez litzaiekeela baieztatzen dutenak (%6,2-8,4 bitartean).



13. irudia: Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Etxekoak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"




14. irudia: Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Lankideak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"



15. irudia: Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Lagunak. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3.2.1. Euskara ezagutzearen desiragarritasuna hizkuntza gaitasunaren arabera

Euskal herritarrek eta beren inguruak euskarekiko duten atxikipenari dagokionez, egiaztatzen da **zenbat eta euskara gehiago jakin, orduan eta jarrera hobea dela euskararekiko**. Inkestatuek euskaraz hitz egitea gustatzen zaien edo gustatuko litzaiekeen ingurukoak kopuruak hartzerakoan, etxea da kopururik handiena duen esparrua profila guztietan, gero lagunak eta azkenik lankideak. **Hori horrela da hizkuntza profila guztietan, baina oso maila ezberdinean:**



31. grafikoa: Euskara ezagutzaren desiragarritasuna hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Grafikoan ageri diren datuak aletzeko, euskaldunen kasuan, etxearen esparruan aritzeak gustagarritasun handia du (%78,2) eta lagunak (%68,6) eta lankideen (%62,6) eremuan ere ingurukoak gustatzen zaiela adierazi du gehiengoak. Euskaldunen artean, bigarren postuan adierazitakoa da ingurukoak berdin zaiela (etxeakoei: %19,7; lagunei: 27,7; lankideei: %25,2) eta oso txikiak dira ingurukoak euskaraz egitea gustatzen ez zaiela adierazten dutenak (etxeakoei: %2,1; lagunei: %3,7; lankideei: %5,7).

1a euskaldun eta erdaldunen kasuan, ordea, datuak ezberdinak dira. Euskaraz entzutea gustatzen dutela adierazi arren, erdaldunen artean erantzun nagusia da etxeakoei ezaxola zaiela euskaraz aritzea ala ez (%49,3), gustatzen zaienez gainera (%41,7). 1a euskaldunen kasuan, berriz, etxeakoei gustatzen zaiela da erantzun nagusia (%50,8), baina berdin zaienez kopurua hurbil dago (%44,19). Etxeakoei ez gustatzea adierazi dutenak, nahiz eta

euskaldunen kasuan baino gehiago izan, gutxi dira, baita ere, ia euskaldunen (%5,1) eta erdaldunen (%9) artean.

Halaber, bai ia euskaldunen bai erdaldunen artean gehien adierazitakoa da lagunei eta lankideei berdin zaiela euskaraz entzutea ala ez (lankideak: ia euskaldunak %48,0, erdaldunak %56,5; lagunak: ia euskaldunak %54,0, erdaldunak %52,9). Bigarren erantzuna euskaraz hitz egitea gustatzen zaiela da, ia euskaldunen artean askoz hurbilago berdin zaiela diotenetatik (lankideak %45,3; lagunak %41,2) erdaldunen artean baino (lankideak %33,0; lagunak %35,6). Gustoko ez dutenak kopuruari buruz, azkenik, erdaldunen artean topatzen dugu kopuru handiena, baina gutxiengoa dira, hamarretik bat inguru (ez litzaieke lankideei gustatuko: %10,6; eta lagunei: %11,5), ia euskaldunei dagokienez %6,7ak adierazi du ez litzaiekeela lankideei gustatuko, eta %4,8k ez litzaiekeela lagunei gustatuko.

3.3. EUSKARARI LOTUTAKO JARDUERA INSTITUZIONALAREN BALORAZIOA

Euskal herritarren erdiak uste du euskararen harira gastatzen den dirua ez dela alferrekoa (%50,3). Hala ere, %21,5ak pixka bat alferrik egiten dela uste du, eta %21,7a ados dago euskararen harira dirua alferrik gastatzen denaren ideiarekin.

Euskara instituzionalki babestu behar dela %74,9 bat dator, %17,5 neurri batean ados dago, eta azkenik, %7,6 besterik ez da kontra agertzen. Gainera, euskararen aldeko jardun instituzio-

nalak gehiengoaren babesa du herrialde guztietan: Ipar Euskal Herria (%83,9), Gipuzkoa (%80,6), Bizkaia (%77,2), Araba (%70,2) eta Nafarroa (%62,4).

Beraz, oro har, euskal herritarrek euskararentzat egiten diren jarduerak instituzionalen aurrean jarrera positiboa dutela ondoriozta daiteke. Izan ere, ados daude euskara instituzionalki babestearekin eta gehiengo zabal batek ez du uste dirua alferrik gastatzen ari denik.




16. irudia: Euskarari lotutako jarduerak instituzionalaren balorazioa. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3.3.1. Euskararen inguruko jardura instituzionalaren balorazioa, profilen arabera

Hizkuntza profilaren arabera, ez dago alde handirik. Euskaldunek euskara babestu beharra indar handiagoz sentitzen dute eta dirua alperrik gastatzen ari dela gutxiagoz, baina aldeak ez dira oso handiak eta orokorrean hiru profiletan aldeko jarrera berdina da. Joera hau mantentzen da herrialde guztietan eta adin tarte guztietan ere. Haien burua abertzale eta erabat ezkerrekotzat jotzen dutenak euskararen harira ez dela dirurik alferrik gastatzen uste dute 10etik ia 8k.

Adinari dagokionez, berriz, aintzat hartzeko moduko datu bat ageri da: 65 urtetik gorakoek %80ak euskara instituzionalki babestu beharra dagoela uste du, 30-44 adin tartean ostera, %67ak uste du bakarrik. Nafarroan da herrialde guztietatik pontzentai baxuena eskuratzen duena (%63,4) eta Iparraldean altuena (%83,9).



32. grafikoa: Euskararen inguruako jardura instituzionalaren balorazioa, hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

3.4. JARREREN INDARGUNE ETA AHULEZIAK

Lagina osatu duten pertsonen artean beren buruak euskaraz hitz egiteko gai ikusten dutenak %33,7 dira eta %40a ez da gai sentitzen. 2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera %28 dira euskaldunak eta %16 euskaldun hartzaileak, baina herrialdeen arabera datu hauek asko aldatzen dira grafikoetan ikusi dugun moduan. Gure inkestak datu horiek berresten dituen arren, **gehiengoa euskaraz egiteko gai ez sentitzea ahulezia gisa hartu behar dugu, heren bat bakarrik sentitzen delako gai euskaraz komunikatzeko.**

Euskaraz hitz egitean inkestatuek sentitzen dituzten sentimenduei dagokienean, **inkestatuak edo bere ingurukoek euskaraz egitean, gailentzen diren sentimenduek positiboak dira, indargune nabarmena dena.** Sentimenduetan sakonduz, ordea, aldeak daude hizkuntza gaitasunaren arabera. Euskaldunen artean ondo sentitzea da sentimendu hedatuena (%85) eta ondoren harro sentitzea (%71). Ia euskaldunak ostera ez dira hain harro sentitzen (%28,9) eta hain ondo ere ez (%43,8) euskaraz hitz egiten dutenean.

Euskara ezagutzearen desiragarritasuna aztertzean, hizkuntza gaitasunaren arabera oso datu interesgarriak ditugu. Zenbat eta euskara gehiago jakin, orduan eta jarrera hobea euskararekiko, **etxea, familia, agertzen delarik euskararentzat konfiantzazko esparru nagusia.** Beraz, zenbat eta gehiago ezagutu hizkuntza, orduan eta gehiago nahi da hizkuntza transmititu eta familiarean hau erabili. Euskarak etxearekin eta familiarekin duen lotura estua aspaldidanik dator, eta horrela izaten jarraitzen du.

Euskarari lotutako jardura instituzionalaren balorazioan, berriz, indargune handia ageri da. Oro har, euskal herritarrek euskararentzat egiten diren jardura instituzionalen aurrean jarrera positiboa dutela ondoriozta daiteke.

Izan ere, ados daude euskara instituzionalki babestearekin eta gehiengo zabal batek ez du uste dirua alperrik gastatzen ari denik. Hau indargune handia da, euskararen alde Instituzioen partetik oraindik bultzada handia emateko aukera dagoelako ekimen gehiagorekin, %74,9ak uste baitu euskara instituzionalki babestu beharra dagoela.

- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak
- 3. aktitudeak


4. ATXIKI-MENDUA

- 5. aktibitatea
- 6. ondorioak
- 7. taulen aurkibidea
- 8. grafikoen aurkibidea
- 9. irudien aurkibidea

Baliatu dugun eredia hierarkikoa den neurrian, atxikimenduaren atal honetan, asoziazioen eta aktitudeen ondorioz sortutako atxikimendua, lotura afektiboa, aztertuko dugu. Horretarako, lehenengo urratsa euskararen gustagarritasuna eta arbuio orokorra aztertzea izango da.


4.1. EUSKAREKIKO ATXIKIMENDUA ETA IDENTITATEAREKIKO LOTURA

Jarraian ageri den grafikoan euskararekiko atxikimendua eta identitatea adierazten duten itemetan jasotako erantzunak erakusten dira. Adostasun handiena lortu duena euskara gehiago edo hobeto jakiteko nahia izan da (%70,4), euskararenganako gustua oso hurbil delarik (%69,7); horien atzetik, euskal komunitatearekiko atxikipena dator (%59,5), hirurak galdekatutakoen erditik gorakoaren aldeko erantzunekin. Koska bat beherago euskararen defentsan konprometitua sentitzea (%49,5) dago eta jarraian, apur bat beherago, hori bai, norbera den pertsona izateko euskara funtsezko ezaugarria delako ideia (%38,0). Oso gutxi aipatzen dute, aldiz, hizkuntzak euskara erabiltzen duen pertsona bakar eta berezi egiten duenaren ideia (%26,6) eta, azkenik, ia atxikimendurik gabe geratzen da euskararekiko gorrotoa (%4,0).




33. grafikoa: Euskararekiko atxikimendua eta identitatearekiko lotura. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Grafikoan euskara hobeto jakiteko nahia da gehien azpimarratzen den ezaugarria, hizkuntza gaitasunaren arabera datuak aztertzen ditugunean agertuko dira honi buruzko ñabardura interesgarrienak. Bestalde, euskararen marka-atxikimendua orokortasunean aztertuz gero, argazki indartsua agertzen zaigu: euskara asko gustatzen zaiola hamarretik zazpik erantzun du (%69,7), eta kontra agertu direnak hamarretik bat dira (%10).



17. irudia: Euskararen gustagarritasuna. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Item zuzen bat baliatu da euskara gorroto dutenen kopurua erdiesteko. "Euskara biziki gorrotatzen dut" baieztapenaren aurrean inkestatuen gehiengo zabala (%87,7) kontra azaldu da. Euskarak gorroto bizia eragiten diola esatean, %4 agertu da ados eta %8,2 erdizka ados. Ezbairik gabeko hater-ak %4 izango lirite hortaz, baina horrelako baieztapen gogorraren aurrean aintzat hartzekoak dira ere erdizka ados agertu direnak. Hartara, euskararen gustagarritasunari zegokion aurreko galderari ere erreparatuz, esan liteke hater kopurua %10etik gora ibiliko litzatekeela¹.




18. irudia: Euskararekiko gorrotoa. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

¹ Marka atxikimendu eta leialtasunari buruzko neurgailuak oso manikeoak dira. Adibide gisa, Net Promoter Score neurgailuan marka gomendatzeko borondateari buruz galdetzean, 1etik 10erako eskalan 9 eta 10 erantzuten dutenak soilik hartzen dira gomendatzaile gisa. 6tik beherako guztiak, berriz, aurkari gisa hartzen dira. Horregatik, gorrotoari buruzko galderan erabat ados eta erdizka ados agertu direnak hater modura har daitezke.

Halere, argazki orokorra indartsua bada ere, atxikimenduari lotutako elementuetan sakontzen dugun neurrian atxikimendu hori apalduz doala ikusiko dugu, bai komunitateari eta identitate kolektiboari dagokionean, baina baita, batez ere, nortasun individualari dagozkion galderetan ere.


Lehenengo eta behin, gutxiago dira euskal komunitatearen parte izan nahi dutenak (%59,9) euskara hobeto jakin nahiko luketenak (%70,4) baino. Baina bestetik, euskara asko gustatzen zaiela adierazten dutenak (%29,7) oraindik gutxiago dira euskararen defentsan konprometituta sentitzen direnak (%49,5) baino.

Euskal komunitatearen parte izateari dagokionez, esan bezala, %59,9k parte izan nahi duela dioen bitartean, parte izan nahi ez dutela diotenak, berriz, %19,2 dira, eta %21,3 dira erdizka izan nahi dutenak:




19. irudia: Euskal komunitatearen parte izateko nahia. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara defendatzeko konprometituta sentitzen direnen kopurua ez da oso altua (%49,5) eta, aldiz, nabarmentzekoa da konprometituta sentitzen ez direla diotenena (%28,2) edota neurri batean bakarrik konprometituta sentitzen direla diotenena (%22,3):




20. irudia: Konpromisoa euskararen defentsarekin. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Maila indibidualera eta norberaren izaerara hurbildu ahala atxikimendua nabarmen jaisten da. Oso polarizatuta daude emaitzak maila indibidualan euskara nortasunaren funtsezko ezaugarria ote den galdetzean. Muturretan oso antzekoak diren bi bloke ageri dira. Oso-oso gutxigatik, baina gehiengoarentzat, %38,9rentzat, euskara ez da funtsezko ezaugarria norbera den pertsona izateko. Aitzitik, %38 horren kontra azaldu da, hau da, ezaugarri funtsezkotzat du euskara bera den pertsona izateko eta beste %23,1ak ere neurri batean hala dela iritzi du. Edonola ere, beren nortasunaren eraikuntzan euskara funtsezko ezaugarri dela diotenen kopurua ez da altua:



21. irudia: Euskara nortasunaren funtsezko ezaugarria. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Bestalde, marka atxikimenduaren beste ezaugarri garrantzitsu bat marka horrek berezi egiteko eta besteengandik bereizteko eskaintzen duen aukera da. Kasu honetan, euskarak erabiltzen duen persona bakar eta berezi egiten ote duen galdetuta, gehiengoa kontra agertu da nabarmen.



22. irudia: Euskarak berezi egiten du erabiltzailea. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

4.2. ATXIKIMENDUAREN INDARGUNE ETA AHULEZIAK

Marka atxikimenduari lotutako datuak orokortasunean aztertuta, esan bezala, datu indartsuak agertzen zaizkigu: euskara asko gus-tatzen zaiola hamarretik zazpik erantzun du, eta kontra agertu direnak hamarretik bat dira. Beste horrenbeste gertatzen da gorrotoari lotutako galderarekin, gehiengo zabala euskara gorrotatzearen (%87,7) kontra azaldu da. Oso barreatuta dagoen beste atxikimendu-adierazle bat euskara hobeto edo gehiago jakin nahi izatea da (%70,4), aurreko atalean aktituteetan nagusitzen zen ez-gaitasun sentimenduarekin bat egiten duena.

Halere, atxikimenduaren adierazle diren adierazpide zehatza-goetan sakonduta, kopurua apaltzen da. Gutxiago dira euskal komunitatearen parte izan nahi dutenak (%59,9) eta inkestatuen erdia sentitzen da euskararen defentsan konprometituta (%49,5). Ahulezia nagusia, ordea, indibualtasunera eta identitateari lotutako subjektibitate hurbildu ahala topatzen dugu. Heren batek baino zertxobait gehiagok dio euskara funtsezko ezaugarria dela den pertsona izateko (%38) eta %23,1ek neurri batean, baina gailentzen dena euskarak norbere nortasunaren sorkuntzan pisurik ez duela da (%38,9). Are sakonagoa da joera hori euskarak erabiltzen duen persona bakar eta berezi egiten ote duen erantzunean, gehiengoa kontra agertu baita (%49,7). Hortaz, euskararen marka orokortasunean aztertuta, badu atxikimendua, baina norbanakotasunera jauzi eginda ez du hainbeste konektatzen norbanakoaren identitatea eratzekeko elementu bereizgarri gisa.


- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak
- 3. aktitudeak
- 4. atxikimendua

5. AKTIBITATEA


- 6. ondorioak
- 7. taulen aurkibidea
- 8. grafikoen aurkibidea
- 9. irudien aurkibidea

Aktibitatearena da hasieran irudikatu dugun piramidearen erpina, prozesu guztiaren azken ondorioa, alegia. Marka gustoko izatearen edo aurkari izatearen ondorioz egindako ekintzak hartzen dira aintzat aktibitatearen atal honetan. Hitzuna, marka bultzatu edo deitoratzeko jarrera aktiboa izatera pasako litzateke, markarekin izan duen harreman eta esperientzia guztiaren ondorioz (antzematean, asoziazioetan, aktituedeetan eta atxikimenduan aztertu duguna).


Atal honetan, hortaz, euskararen alde egiten diren (edo ez diren) ekintza edo jarduerak bilduko dira. Euskararekin lotutako jardueren artean, alde handiarekin nabarmentzen da seme-alabei hizkuntza transmititzea (%61,7). Horrek bat egiten du asoziazioetan irudikatutako hitzuneekin, non alaba-semeak gailentzen diren. Bigarren mailan geratzen dira beste jarduerak, hala euskara bultzatzeko ekimenetan parte hartzea (%32,4), nola euskaraz eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko ahaleginak egitea (%31,0). Elkarrizketetan euskararen erabilpenarekin lotutako portaerak ere bigarren maila horretan kokatzen dira, bai lehen hitza euskaraz egitea (%28,1) bai euskaraz interpelatuak izanda euskaraz jarraitzea (%30,6). Atzerago geratzen da, nabarmen, euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzea (%16,6).



Euskara seme-alabei transmititzea



Euskara bultzatzeko ekimenetan parte hartzea. Euskaraz eskaintzen diren produktuak kontsumitzea. Euskara elkarrizketetan erabiltzea




23. irudia: Euskararen aldeko aktibitatea. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Argazki horrek erakusten du, parte batean behintzat, ondorengo gain jartzen dela euskararen berreskurapenaren ardura. Izan ere, baxua baita euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan adierazten den parte hartzea. Atxikimenduaren atalean ikusi dugu babes gehien jasotako atala euskara gehiago jakiteko nahia zela (%70,4), nahitik praktikara, ordea, salto handia dago eta oso gutxi adierazten du ahalegin hori egiten duela.

Azkenik, datu guztiak aintzat hartuta, baieztatu daiteke euskararen markaren maitale aktiboak %28-32 artean kokatuko liratekeela. Atxikimenduaren atalean %69,7 ziren euskara oso gustuko zutelako ziutenak. Datuek erakusten dute, ordea, gustuko izatetik erabiltzera eta defendatzera salto nabarmena dagoela. Euskararen *hater*-ei dagokienez, berriz, item ezberdinetan jasotako erantzunak hartu behar ditugu aintzat. Atxikimenduaren atalean "euskara biziki gorrotatzen dut" itemean %4 izan da alde agertu dena, eta %8,2, neurri batean.

5.1. AKTIBITATEA PROFIL EZBERDINEN ARABERA


Analisisa hizkuntza gaitasunaren arabera abiatuta, euskararekiko jarrera positiboa euskararen transmisioaren aldeko tasun zabal batean adierazten da, erabatekoa euskaldunen artean (%82,4), eta nagusia baita ere erdaldunen artean (%49,2). Alabaina, esan bezala, datu honek berak erakusten du, parte batean behintzat, ondorengoan proiektatzen dela euskararen berreskurapenaren ardura. Hau nabarmena da, batez ere, erdaldunen artean, %6,2k bakarrik hartzen baitu parte ikasteko ekintzetan eta %83,8k inoiz ez. Bestalde, harrigarria da euskaldunen artean nabarmen gora egiten duela euskara hobetzeko ekintzetan parte hartzeak, %33,6raino, nahiz eta hizkuntzaren ezagutza izan. Kopuru hori nabarmen altuagoa da ia euskaldunena (%19) baino.



34. grafikoa: Euskararen aldeko aktibitatea hizkuntza gaitasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara seme-alabeei transmititu behar diedala sentitzen dut
Euskaraz hitz egiten didatenean erdarara aldatzen dut
Euskara bultzatzeko ekimenen batean parte hartu dut


Ahalegin berezia egiten dut euskaraz eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko
Eguneroko elkarrizketan lehen hitza euskaraz egiten dut
Euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzen dut



35. grafikoa: Euskararen aldeko aktibitatea lurraldeka. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara seme-alabeei transmititu behar diedala sentitzen dut
Euskaraz hitz egiten didatenean erdarara aldatzen dut
Euskara bultzatzeko ekimenen batean parte hartu dut


Ahalegin berezia egiten dut euskaraz eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko
Eguneroko elkarrizketan lehen hitza euskaraz egiten dut
Euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzen dut



37. grafikoa: Euskararen aldeko aktibitatea ideologiaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara seme-alabeei transmititu behar diedala sentitzen dut
Euskaraz hitz egiten didatenean erdarara aldatzen dut
Euskara bultzatzeko ekimenen batean parte hartu dut


Ahalegin berezia egiten dut euskaraz eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko
Eguneroko elkarrizketan lehen hitza euskaraz egiten dut
Euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzen dut



36. grafikoa: Euskararen aldeko aktibitatea adinaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Euskara seme-alabeei transmititu behar diedala sentitzen dut
Euskaraz hitz egiten didatenean erdarara aldatzen dut
Euskara bultzatzeko ekimenen batean parte hartu dut

Ahalegin berezia egiten dut euskaraz eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko
Eguneroko elkarrizketan lehen hitza euskaraz egiten dut
Euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzen dut



38. grafikoa: Euskararen aldeko aktibitatea abertzaletasunaren arabera. Iturria: Aztiker, "Euskararen marka, 2019"

Beste aldagai soziodemografikoei erreparatuta, aipatu behar da transmisiorako borondate argia apalagoa dela gazteen artean (%50,6) nagusiagoen artean baino (%66,3). Koerlazioa dago baita eskala ideologikoan, zenbat eta ezkererago orduan eta argiagoa baita transmisiorako borondatea (%80,3), eskuineragokoen kontrara (%46,7). Nolanahi ere euren burua eskuinean kokatzen dutenek ere transmisioaren aldeko jarrera hori argiagoa dute kontrakoa baino (%31,3). Lurraldeari erreparatuta Iparraldean agertzen da transmisioaren aldeko jarrera nabarmenena (%82,6) eskalan behera egiten delarik hurrenez hurren, espero zitekeen bezala, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan barrena.

Guztietan jarrera positiboek erruz irabazten diete kontrakoei, Nafarroan izan ezik. Nafarroan gehiago baitira transmisioa baloratzen ez dutenak (%45,7), harekiko jarrera positiboa dutenak baino (%38,7).

Apreziazio hau bat letorke euskararen erabilpenarekin lotutako ekintzetan hautemandako jarrerekin. Izan ere, oro har garrantzitsua bada ere lehen hitza euskaraz egiten dutenen kopurua, baita erdaldunen artean ere, esanguratsua da, halaber, euskaraz interpelatuak izan eta gero erdarara jotzen duten euskaldunen kopurua (%12).

Lehen hitza euskaraz egiteko joeran ere aipatzekoa da adinaren aldagaia. Izan ere, ezagutza maila handiagoak bestela iradoki balezake ere, behera egiten baitu, nabarmen, gazteen artean (%22). Adina esanguratsua dela dirudi baita euskara bultzatzeko

ekimenetan parte hartzeko joeran edo euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko egindako ahaleginetan ere. Izan ere, ekintza bietan, behera egiten baitu portzentajeak gazteenen ataletan, ez horrenbeste euskararen bultzadari dagokionean (%27,6), bai ordea kontsumoan (%20,4).

Herrialdearen arabera ere alde handia dago lehen hitza euskaraz esateko joeran: Gipuzkoatik (%50,2) Araba, Nafarroa edota Iparraldera (%16 eta %11,4 bitartean), tartean kokatzen delarik Bizkaia (29,9). Guztiarekin ere Gipuzkoa da herrialde bakarra non gehiago diren lehen hitza euskaraz egiten dutenak. Beste herrialdeetan lehen hitza euskaraz egiten ez dutenak gehiago dira erruz, euskaraz egiten dutenena baino. Eskala ideologikoaren arabera ere koerlazioa argia da: zenbat eta ezkererago gehiago dira lehen hitza euskaraz egiten dutenak (41,4).

Herrialdeen arteko ezberdintasunei berriro helduta, euskara ikasi edo hobetzeko ahaleginetan, Bizkaia (%20,8) Gipuzkoaren aurretik da (%18,1), gainerako guztiak %11-12ren bueltan mugitzen diren bitartean. Euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko ahaleginetan, aldiz, Iparraldea nabarmentzen da, bertako erantzunen %64,5 adierazten baitute egiten dutela ahalegina. Gipuzkoan ere altuagoa da bataz bestekoa baino (%42), beste lurraldeetan %20ren bueltara jaisten delarik. Eskala ideologikoan, berriz, korrelazioa aurki genezake, zenbat eta ezkererago eta abertzaleago, orduan eta joera argiago euskara ikasi edo bultzatzeko edota euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko.

5.2. AKTIBITATEAREN INDARGUNE ETA AHULEZIAK

Euskararenganako atxikimendu orokorra handia zen bezalaxe, aktibitatearen atal honetan ere aldeko jarrera orokorra ageri da euskararen biziraupenari eta transmisioari dagokionean. Euskara ez da zalantzan jartzen. Joera hori profil guztietan eta lurralde guztietan da horrela, salbuespen batekin: Nafarroan gehiago dira euskara transmititu beharra ukatzen dutenak euskara transmititu behar dutela sentitzen dutenak baino.

Bestalde, nahiz eta atxikimendu orokorra handia izan, jarrera proaktiboa heren baten bueltan kokatzen da. %28-32 tartean kokatzen dira euskara bultzatzeko ekimenetan parte hartzea, euskaraz eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko ahaleginak egitea, lehen hitza euskaraz egitea eta euskaraz interpelatuak izanda euskaraz jarraitzea. Heren hori izango litzateke benetako marka atxikimendua izan eta jokaerara daramana.

Euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzea da atzeren geratzen den atala, bereziki adierazgarria da kasu honetan euskaldunak izatea horrelako ekintza gehiagotan parte hartzen dutenak, ia euskaldunak eta erdaldunak baino nabarmen gehiago. Batzuen kasuan, zailtasunaren irudiak edota bizitzeko hizkuntza ezagutu beharrik ez izateak, eragin handia izan dezake hura ez ikasteko ahaleginik ez egite horretan. Euskaldunen kasuan, aldiz, kontraesankorra dirudi hobetzeko ahaleginean parte hartzen duten euskaldunen kopuru benetan esanguratsua, ia euskaldunena baino nabarmen altuagoa, honek erakutsi dezakeelarik euskaldun askoren nolabaiteko ziurgabetasun edo gabezi sentimendua euskararen ezagutzarekiko.

Amaitzeko, azpimarra egin behar zaio adin tarte gazteenetan identifikatutako joerari: nahiz eta euskararen ezagutza handiena dutenak izan, euren erabilera ez da handiagoa. Halaber, euskara bultzatzeko ekimenetan parte hartzeko joeran edo euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko egindako ahaleginean ere gazteen artean behera egiten baitu portzentajeak beste adin tarteekin alderatuta, bereziki azken honetan.

Lurraldeka, datu soziologikoekin bat etorritik, Gipuzkoa da herrialde bakarra non gehiago egiten den lehen hitza euskaraz eta nabarmentzekoa da Iparraldearen kasua euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko ahaleginetan. Agian Iparraldean euskara eta euskalduntasunak operatzen du marka komertzial modura bertako hainbat produktu eta zerbitzuentzat.

0. metodologia
1. antzematea
2. asoziazioak
3. aktitudeak
4. atxikimendua
5. aktibitatea

6. ONDO- RIOAK

7. taulen aurkibidea
8. grafikoen aurkibidea
9. irudien aurkibidea

Marka baten sorkuntza eta eraikuntzan parte hartzen duten bost urratsak aztertu ostean (antzematea, asoziazioak, aktitudeak, atxikimendua, aktibitatea) euskararen markari dagokion azterketa orokorra egiteko parada dugu. Baliatutako eredu hierarkikoa den neurrian, urratsez urrats azpimarratutakoak berrekarriko ditugu, bukaerako ondorio nagusietara iritsi ahal izateko.

Marka baten oinarria marka hori ezagutzea eta eguneroko bizitzaren atal ezberdinetan presente egotea edo gogora etortzea da, antzemate gisa izendatu duguna. Euskarari dagokionez, antzemate maila berez hitzun kopuruaren arabera egokituko litzaioketetik behera dago, baita euskaldunen artean ere. Egoera, gai eta mintzakide ezberdinak aipatuta, ez dator gogora etorri beharko lukeen neurrian, ia euskaldunen kasuan oso ahulak dira loturak, eta erdaldunen kasuan euskara erabat desagertzen da.

Hori horrela izanik ere, gehiengoaren pertzepzioa da euskarak gero eta toki eta presentzia handiagoa duela. Hau da, pertzepzio orokorra baikorragoa da gero egoera, gai eta mintzakide jakinak aipatzean egiten den lotura baino. Etorrizunari begira, gehiengoaren nahia da euskarak jendartean duen presentzia handitzea. Gai garrantzitsua inondik ere, euskara bultzatzeko hizkuntza politiken babesa iradokitzen baitu.

Bestalde, euskara etxeari lotura ageri da batez ere: mintzakideen artean aipatuenak seme-alabak dira, eta mintzakide helduagoekin, esaterako, bikotea edo lagunak, askoz apalagoak dira loturak. Eremuei dagokienez, etxearekin batera eskolarekin lotzen da gehien, baina ez agian espero zitekeen mailan. Gaietan ere, pertsonen eguneroko informaletik hurbilen dauden eguneroko gaiak eta pertsonalak gailentzen dira, zientzia eta ekonomia bezalako gaietan, alta, oso kopuru txikian dago euskara presente jendearen antzematean.

Hortaz, euskararen markaren lanketa antzematearen ataletik abiatu beharko genuke, berez jada jendartean baduen presentzia proiektatu eta jendearen gogoetara eramateko. Hizkuntza bat erabiltzeko ezinbestekoa baita, besteak beste, egoera, mintzakide

edo gai ezberdinetan hizkuntza hori gogora etortzea. Hizkuntza alor ezberdinetan eskura egoteak garrantzia badu, ez du garrantzia gutxiago presentzia horren ondorioz sortzen diren asoziazio-bildumek. Hain zuzen, marka azterketa honen bigarren urratsa. Asoziazio horiek funtzionalak (hizkuntzaren berezko ezaugarri gisa hartuak) edo sinbolikoak izan daitezke.

Euskararen iruditeri kolektiboa honako ezaugarriek osatzen dute batez ere: ezaugarri funtzionalak dagokionez, hizkuntza polita eta zaila da, eta maila sinbolikoan, berriz, hizkuntza autentikoa, tradizionala eta maitatua da.

Bere horretan negatibotzat har daitezkeen asoziazio bakarra hizkuntza zail gisa hartua izatea da. Zailtasun pertzibitu hori hizkuntza ikasi eta hedatzeko traba baita. Horrekin batera, euskara integratzailea eta bateratzailea dela uste dutenak gehiago dira, baina talde esanguratsu batek pentsatzen du euskarak ondorio negatiboak dakartzala, alegia, jendea baztertzen eta banatzen duela. Horretaz gain, euskarari ez zaio ezaugarri negatibo zalantzagaberik egozten. Ezaugarri sinbolikoetan ageri den maitasuna sumatzen da jendearen asoziazioetan.

Halere, euskararen asoziazioek batasunean eraikitzen duten euskararen irudia aho biko ezpata dela baieztatu genezake. Euskarari izaera mitiko moduko bat ematen zaio, eguneroko praktikotasunetik aldentzen duena. Hizkuntza ederra eta autentikoa da, baina aitzinakoa eta zaila. Irudi hori ez litzateke hain kaltebera izango antzematean zehaztu diren egunerokotasuneko gai, mintzakide eta egoerekin loturak handiagoak izango balira. Zentzu berean, gehiengoak balio praktikoa egozten badio ere, ia-ia beste horrenbeste dira balio praktikorik egozten ez diotenak.

Are, irudi hori asko indartzen dute asoziazioetan gailendu diren euskal hiztunaren irudi prototipikoak: euskal hiztunak abertzaleak dira gehiengoaren gogoan, baita atseginak eta arduratsuak. Baina, horrekin batera, gehiengoak baserritar eta tradizional irudikatzen ditu (toleranteak izatearekin batera). Aipagarria da adin guztietako euskaldunak irudikatzen direla (eta baita gazteak zaharrak baino gehiago ere), nahiz eta gazteen artean bada- goen joera euskaldunak zaharrago irudikatzeke (baita baserritar eta tradiziozaleago ere).

Hizkuntzari egozten zaion asoziazio-multzoak hizkuntzaren- ganako aktitudeak bideratzen ditu, alegia, hizkuntza buruzko sentimendu eta ebaluazio baloratibo-afektiboak. Aktitudeei dagokionez, aktitude positiboak nagusitzen direla esan daiteke, euskaraz aritzean edo ingurukoak euskaraz mintzatzean nagusitzen diren sentimenduak baikorrak dira: lasai, ondo, errespetatu eta onartu sentitzea, alegia. Gailentzen den sentimendu ezkorra euskaraz aritzeko gaitasun falta da, heren bat bakarrik sentitzen baita gai euskaraz aise aritzeko. Harrotasunean, berriz, jendearen gehiengoak "ez harro ez lotsatuta" posizioan kokatzen da, nahiz hurbil jarraitu "harro" sentitzen direnen kopuruak. Hori adatzen da hizkuntza profilen arabera, euskaldunen artean "ondo" sentitzea- ren ostean "harro" sentitzea baita hedatuena. Ia euskaldunak osteria ez dira ez hain harro ez hain ondo sentitzen.

Sentimendu horien ondorioz, ingurukoak euskaraz aritzea gus- toko duten edo gustatuko litzaiekeen galdetuta, etxea, familia agertzen da berriz ere euskararentzat erreferentziako eremu gisa, etxekoei euskaraz aritzea (edo jakitea) gustatzen zaiela adierazten baitu gehiengoak. Lagunen eta lankideen artean, ordea, datuak sakabanatuago daude.

Euskarari lotutako jarduera instituzionalaren balorazioan, gehien- goa ados dago euskara instituzionalki babesteko beharrekin eta gehiengo zabal batek ez du uste dirua alperrik gastatzen ari denik. Datu esanguratsua, antzematean agertu den euskarak jendartean duen presentzia handitzeko nahiarekin batuta, aukera ematen duena euskararen aldeko bultzada handitzeko.

Hortaz, oro har, aktitude mailan, euskarak aktitude positiboak so- rrrarazten ditu, nahiz eta, aurretik jada aipatu diren joera zenbaitek indarra hartu; esaterako, etxea izatea euskararengandik hurbilen ikusten den eremua. Aktitude baikor horietatik atxikimendua garatzera saltoa dago, eta hori izango da aztertuko dugun hu- rrengo.

Puntu honetan, ezin aipatu gabe utzi profil ezberdinetan sakontze- an atal guztietan eragina izan duen joera bat: zenbat eta ezkerrekoago eta abertzaleago, jarrera hobea euskararentzat, eta kontrara: eskumatik eta ez abertzaletasunetik euskara okerrago baloratzen da euskara. Koerlazioa baitago, bere horretan, euskara ezagutzaren eta ideologia politikoaren artean.

Marka atxikimenduari dagokionez, atxikimendu orokorrean eus- karak atxikimendu handia duela ondorioztatu dezakegu: euskara asko gustatzen zaiola erantzun du gehiengoak, eta, norabide be- rean, euskara gorrotatzearen kontra azaldu da. Aurretik aktituede- tan nagusitu den gai ez izatearen sentimenduekin bat etorritik, euskara hobeto edo gehiago jakin nahi izatea da.

Nolanahi ere, argazki indartsu hori apaldu egiten da atxikimen- duaren adierazle gisa hartutako alor zehatzagoak aztertuta. Gu- txiengo baitira euskal komunitatearen parte izan nahi dutenak, eta

oraindik gutxiago sentitzen da euskararen defentsan konprome- tituta. Apaltze- joera hori are nabarmenagoa da norbere izaerari lotutako atxikimendu-adierazpideetan. Euskarak norbere norta- suna eratzeko funtsezko ezaugarria ote den gehiengo ezezko aldera lerratzen da, eta euskarak erabiltzen duen persona bakar eta berezi egiten ote duen, gehiengoak kontra agertzen da. Hortaz, euskararenganako atxikimendua modu orokorrean hartuta emait- za positiboa den arren, orokortasunetik norbanakora jauzi eginez gero, ez du hainbeste atxikimendu identitatea eratzeko elementu bereizgarri gisa. Marka ororentzat da garrantzitsu eta desiraga- rria nortasun indibiduala mamitzeko baliabidea izatea.

Aktibitatea da euskararen marka ikertzeko erabili dugun eredu hierarkikoaren azken atala: erpina, azken emaitza. Marka norbere identitatearen parte izatetik, jarrera proaktibo batera igarotzea. Aktibitatearen atalean ere, atxikimenduaren azterketan agertu den joera berretsi da. Orokorki, euskara ez da zalantzan jartzen eta, salbuespenak salbuespen, aldeko joera hori profil guztietan eta lurralde guztietan da horrela. Halere, jarrera proaktibo askoz murriztago da eta heren baten bueltan kokatzen dira euskara bultzatzeko ekimenetan parte hartzea, euskaraz eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeko ahaleginak egitea, lehen hitza euskaraz egitea eta euskaraz interpelatuak izanda euskaraz jarraitzea. Heren hori izango litzateke benetako marka atxikimendua izan eta jokaerara daramana.

Adierazgarria da euskara ikasteko edo hobetzeko ekintzetan parte hartzea dela atzeren geratzen den atala, kontuan hartuta gehiengoak ez gaitasunean kokatu duela bere burua. Are adieraz- garriagoa da, euskaldunak izatea horrelako ekintza gehiagotan

parte hartzen dutenak, ia euskaldunak eta erdaldunak baino nabarmen gehiago.

Hortaz, euskararen markaren prozesu hau guztiau aztertuta, na- barmendu daiteke aktitudinalki euskararen aldekotasuna orokor- tua den arren, banakakoen identitate sorkuntzari lotuta ez dela ezaugarri bereizlea, eta hortaz atxikimendua maila orokorrean horretan geratzen da. Ondorioz, euskarari lotutako aktibitateak ez du aldeko aktitude horrekin bat egiten.

Marka lanketa egiteko, halere, piramidearen erpinetik hasi behar- ko litzateke, txosten honetan atal guztietan azaldu baitira jorratu beharreko alorrak: egoera, mintzakide eta gai ezberdinetan presentean egotea lortzetik hasi, ondorio kaltegarriak dituzten asoziazioak eraldatu eta eguneroko hizkuntza funtzional gisa proiektatuko duten asoziazio positibo funtzional eta sinboliko berriak lantzetik igaro, eta identitate kolektibotik harago euskara nortasun indibidualari lotutako ezaugarri desiragarri gisa aurkez- tuta.

- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak
- 3. aktitudeak
- 4. atxikimendua
- 5. aktibitatea
- 6. ondorioak

7_ TAULEN AURKIBIDEA

- 8. grafikoen aurkibidea
- 9. irudien aurkibidea

1. **taula:** Baztertua / onartua sentitzea, adinaren arabera **56**

2. **taula:** Urduri / lasai sentitzea, adinaren arabera **56**

- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak
- 3. aktitudeak
- 4. atxikimendua
- 5. aktibitatea
- 6. ondorioak
- 7. taulen aurkibidea

8_ GRAFIKOEN AURKIBIDEA

- 9. irudien aurkibidea

- 1. **grafikoa:** Ereduak euskara hutsarekin lotzen dituztenen ehunekoak **9**
- 2. **grafikoa:** Egoera sozialekin lotutako hizkuntzak **10**
- 3. **grafikoa:** Hizkuntza gaitasuna Euskal Herrian **11**
- 4. **grafikoa:** Eskolarekin lotutako hizkuntzak herrialdearen arabera **12**
- 5. **grafikoa:** Eskolarekin lotutako hizkuntzak adinaren arabera **13**
- 6. **grafikoa:** Egoera sozialekin lotutako hizkuntzak hizkuntza gaitasunaren arabera **14, 15, 16**
- 7. **grafikoa:** Euskara nolako gaiekin lotzen den **18**
- 8. **grafikoa:** Gaiak hizkuntza profilararen arabera **19, 20, 21**
- 9. **grafikoa:** Hizkuntzak zein mintzakiderekin lotzen diren **22**
- 10. **grafikoa:** Mintzakideak hizkuntza-gaitasunaren arabera **23, 24, 25**
- 11. **grafikoa:** Euskararen bilakaerari buruzko iritziak **26**
- 12. **grafikoa:** Euskarren atributu funtzionalak **31**
- 13. **grafikoa:** Euskarren atributu funtzionalak hizkuntza gaitasunaren arabera **32**
- 14. **grafikoa:** Abertzaletasun maila eta euskarren atributu funtzionalak **33**
- 15. **grafikoa:** Ideologia politikoa (eskuin-ekzer) eta euskarren atributu funtzionalak **34**
- 16. **grafikoa:** Euskarren balio praktikoak **34**
- 17. **grafikoa:** Euskarren balio praktikoa hizkuntza gaitasunaren arabera **36**
- 18. **grafikoa:** Euskarren balio praktikoa ideologia politikoa arabera **37, 38**
- 19. **grafikoa:** Euskarren atributu sinbolikoak **40**
- 20. **grafikoa:** Euskarren irudia hizkuntza gaitasunaren arabera **42**
- 21. **grafikoa:** Euskarren asoziazio sinbolikoak abertzaletasun mailaren arabera **44**
- 22. **grafikoa:** Euskarren asoziazio sinbolikoak ideologia politikoa (ezker-eskuin) arabera **44**
- 23. **grafikoa:** Euskarren asoziazio sinbolikoak adinaren arabera **45**
- 24. **grafikoa:** Euskararekiko asoziazio sinbolikoak, herrialdearen arabera **46**
- 25. **grafikoa:** Euskal hiztunekiko asoziazioak **48**
- 26. **grafikoa:** Sentimenduak euskaraz egitean (edo besteek egiten dutenean) **51**
- 27. **grafikoa:** Sentimenduak hizkuntza gaitasunaren arabera **52**
- 28. **grafikoa:** Sentimenduak ideologia politikoa arabera **53**
- 29. **grafikoa:** Sentimenduak herrialdeka **54**
- 30. **grafikoa:** Sentimenduak adinaren arabera **55**
- 31. **grafikoa:** Euskara ezagutzaren desiragarritasuna hizkuntza gaitasunaren arabera **58**
- 32. **grafikoa:** Euskarren inguruako jarduera instituzionalaren balorarioa, hizkuntza gaitasunaren arabera **60**
- 33. **grafikoa:** Euskararekiko atxikimendua eta identitatearekiko lotura **63**
- 34. **grafikoa:** Euskarren aldeko aktibitatea hizkuntza gaitasunaren arabera **69**
- 35. **grafikoa:** Euskarren aldeko aktibitatea lurraldeka **70**
- 36. **grafikoa:** Euskarren aldeko aktibitatea adinaren arabera **70**
- 37. **grafikoa:** Euskarren aldeko aktibitatea ideologiaren arabera **71**
- 38. **grafikoa:** Euskarren aldeko aktibitatea abertzaletasunaren arabera **71**

- 0. metodologia
- 1. antzematea
- 2. asoziazioak
- 3. aktitudeak
- 4. atxikimendua
- 5. aktibitatea
- 6. ondorioak
- 7. taulen aurkibidea
- 8. grafikoen aurkibidea

9_ **IRUDIEN AURKIBIDEA**

- 1. **irudia:** Markagintzaren tresnak eta faseak **7**
- 2. **irudia:** Eremuak euskara hutsarekin lotzen dituztenen ehunekoak **9**
- 3. **irudia:** Euskara nolako gaiekin lotzen den **17**
- 4. **irudia:** Euskarari egotzitako atributu funtzionalak **28**
- 5. **irudia:** Euskararen atributu polarizatuak **30**
- 6. **irudia:** Euskararen funtzio praktikoak **35**
- 7. **irudia:** Euskararen ezaugarri sinboliko partekatuenak **40**
- 8. **irudia:** Euskara zapaldua ala zapaltzailea **41**
- 9. **irudia:** Euskara integratzailea ala baztertzailea **41**
- 10. **irudia:** Euskal hiztunen irudia **47**
- 11. **irudia:** Sentimenduak euskaraz egitean (edo besteek egiten dutenean) **51**
- 12. **irudia:** Euskaraz gai / ez gai sentitzea **51**
- 13. **irudia:** Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Etxekoak **57**
- 14. **irudia:** Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Lankideak **57**
- 15. **irudia:** Euskara ezagutzearen desiragarritasuna: Lagunak **57**
- 16. **irudia:** Euskarari lotutako jarduera instituzionalaren balorazioa **59**
- 17. **irudia:** Euskararen gustagarritasuna **64**
- 18. **irudia:** Euskararekiko gorrotoa **64**
- 19. **irudia:** Euskal komunitatearen parte izateko nahia **65**
- 20. **irudia:** Konpromisoa euskararen defentsarekin **65**
- 21. **irudia:** Euskara nortasunaren funtsezko ezaugarria **66**
- 22. **irudia:** Euskarak berezi egiten du erabiltzailea **66**
- 23. **irudia:** Euskararen aldeko aktibitatea **69**

nik

Ikerketa Taldea
Research Group

UPV/FHU

nik

Ikerketa Taldea
Research Group
UPV/EHU

